

ARRASATE PRESSE

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 5a / 653. zenbakia

KALEKARRIA Zentsurie buelta



KORTXI ARROBARRENA, Etxebarria

JON LOTI Langille

Jose... itsasontzian

Jose Luis... itsasontzian... Zentsurien dard... Zentsurien dard...



JUAN TOTORKA Langille

MEKANE Langille

HEGUNA EZAGUTZEN



ENEKO AZKARA Langille



ARRASATE PRESSE

ARRASATE PRESSE

653

EUSKARAZKO AINNTZA PUBLIKOA

BESTEEKESANA

Insurua, Mosa... asabiden lotatz... ok, eta arazo hori... 700000 diru bide... agotzen diren... akatzen diote.

URA / M... karazko aintza

ARRASATE • ARAMAIO

Herriko txikienei in liluragarria

Herriko txikienei in liluragarria... Herriko txikienei in liluragarria...

Tomás Karrera / Askatasun Talpadak

Tomás Karrera / Askatasun Talpadak... "Euskal Herriko gehienok konponb... demokratikoaren alde gaude"

ARRASATE PRESSEK 15 URTE BETE DITU

Hil bukaeran hasiko dira zubi zaharra botatzen

Hil bukaeran hasiko dira zubi zaharra botatzen... Hilarik ez dagoen... zubi zaharra botatzen...

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak RRASATE PRESSEn bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitzuz ezusteko ederra! Doan!

ORAIN ETA HEMEN: HARREMAN-EN DENDA/7 • KIROLA: IBAN GALAN, EUSKADIKO TXAPELDUN/11

AZALA: ALEX AZKARATE

CDTI 3.0 Vectra Berria. Common Rail Diesel Turbo Inyección



Opel. Nuevas ideas. Mejores coches.

Diesel Teknologia potentziarik handiengan



16.760 €-tik Vectra bat duzu.*

CDTI 3.0 Vectra Berria 177 zaldi dituenak, Diesel Common Rail Turbo Inyección potentzia eskaintzen dizu. Mailarik altuena emateko pentsatutako kotxea, kontsumo minimoarekin. a Vectra bat teknologia diesel onenarekin

*Penintsula eta Balearretan Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa, hilabetea bukatu arte, Vectra Essentia 1,8 5 balbuladun modeloan. BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, inportazio gastuak, osagarrien kit-a, promozio deskontua eta Plan Prever berunik gabeko gasolina erabiltzen duten kotxeetan. Argazkiko modeloa ez da eskaintzan ematen den modeloa. Vectra gama: kontsumoa (l/100km) misota 5,6tik 10,4ra. CO2 (gr/km) igorpena 151tik 250ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es

KALEINKESTA/ ARRASATE PRESSEK 15 urte egin ditu; egin baloraziñue.



JULIA MONGE
Langillie

OSANE MENDIZABAL
Langillie

JOKIN IRIA
Jubilae

AGURTZANE GALLASTEGI
Langillie

LUTXI URANGA
Langillie

OSKAR ELIZBURU
Langillie

Neure ustez, ondo dau. Azken baten, gertuko albistiek lantzen ditudue, eta gustora ikusten die herriko jentien erretratuek, herriko albistiek... Gaur, behintzet, ez dutzuet egurrik emungo.

Neuk oso gustora leiduten dot, eta edozein motibogatik ez danien aillegetan, faltan igerten dot. Baloraziñue holaxe egittie ez da bape errexu, baiñe gustora hartzie seiñale ona da.


Neure ustez, zoragarri dau. Hasieratik hona gauzak asko hobetu die, eta inguruko herrixen barri be badaukogu. Testu gehixau, argazki gehixau... Pauso haundixek emun die.

Gaiñontzeko egunkarixetan ez da Mondraguen gaiñeko gauza askorik agerketan, eta ARRASATE PRESSEK hori dauko: herriko kontuek datozela. Jentiek asko eskerketan dau.

Astero-astero begiketan dot, baiñe arazo bat dauket: ez dot entendiduten ze jarten dauen. Hala eta be, notiziak ondokuek itzulketan dustie; dana ulertu barik be gustora hartzen dot.

Esango neuke nahiko konpleto dauela. Seguru arlo danetara ez dala helduko, baiñe herrixari erantzuten dutzola uste dot. Nik, behintzet, ARRASATE PRESS oso gustora leiduten dot.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BEHIN-BEHINEKO OZTOPOA Irakurle batek guregana jo du, aste honetan, kezu bat aditzera emateko asmoz. Otorala kalean, Zarugalde parean, espaloian zuloak egiten dabilta eta horien gainetik txapa batzuk ipini dituzte. Astean egin dituen euri zaparraden ondorioz, edadetu bat baino gehiago txapa gainean labaintzeko beldurarekin ibili da. Hori eman digu aditzera irakurle horrek.

ETABARRUAN...

| | | |
|--|--|--|
| ORAIN ETA HEMEN /7 | KULTURA /13 | KULTURA /14 |
| EHeren manifestua | Akordeoi Lehiaketak | Herritarren zarzuela |
| EHEko ordezkariak euskarak bizi duen egoera kezagarria salatu zuten prentsaurrekoan. | Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak akordeoien gaineko ekitaldi mordoia antolatu ditu. | Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak <i>Luisa Fernanda</i> zarzuela eskainiko du Amaia Udala Antzokian. |

ASTEKO DATUA

4.240

TXERTO JARRI DITUZTE GRIPEAREN AURKA

Arrasateko anbulatorioak gripearen kontrako 4.240 txerto jarri ditu herrian. Iaz baino 75 txerto gehiago. Batez ere, 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak dituztenei jarri diete.

BESTEKE SANA

“ (Pablo Ibarren) aita oso pozik dago, itxaropentsu. Pablo ere ondo dago, abokatuak eta kontsulak bisitatu dute. Txarrena da orain denbora asko itxaron behar dela erantzuna jakiteko, seguruenik udaberrira arte-edo. Baina, guk uste dugu dena ondo irtengo dela (...) Pablo orain dela bederatzi urte espetxeratu zuten. Orain dela hiru urte, ostera, Floridako Auzitegi Gorenak Pablo heriotzako itxarongelara eraman zuen. Orain dela gutxi, Pabloren abokatu Peter Rabenek prozesu judizialaren berrikuspena hasi zuen, prozeduran legez kanpoko zerbait egon den aztertzeko. Hori frogatuko balitz, Pablo heriotzaren itxarongelatik irten eta espetxe normal batera eramango lukete. Pablo orain hobeto dago, itxaropena daukalako...”

PILARE PEREDA IBAR
ARRASATE IRRATIA/03-12-3

HERRITARREN BERBAK/ Iñaki Mendiguren



Aupa gazte heldu hori!

Alajaina! Oharkabeen 15 urte zahartu gabela! Kanpotik hobeto balioesten eta miresten da Arrasateko dinamismoa, gauzak ondo egiteko gaitasuna. Eta horren beste adibide bat baino ez da ARRASATE PRESS. Ez herri-aldizkarietako lehena, baina bai gero besteen artean eraginik handiena izan dutenetakoa, dudarik gabe. Gauza on eta iraunkor gehientsuenak bezala, ARRASATE PRESS ez da bizpahiru lagunren asmakuntza eta lorpena, ekarpen askoren batura baizik, elkarlaren emaitza. Eta lankidetzan hori ahalbidetzea da mondragoarren meritua.

Jada ohitu egin gara astero milaka etxetan euskara hutsean dohainik tokian tokiko informazioa izaten; duela hamabost urte fede handia behar zen hori sinesteko.

Euskara prestigiatzea eta ondorioz hobetu edo ikasteko premia sentiaraztea euskaldun zahar eta erdaldunei; euskaraz-

ko publizitatean izan duen eragina; kazetari askoren trebatze-eskola gertatzea... bertute asko egotzi dakizkieke ARRASATE PRESS bezalakoei; baina nik beste hau azpimarratuko nuke: egunerokotasunari protagonismoa aitortzea, hurbilekoa albiste bihurtzea, bizimodu arruntari duintasuna ematea. Horrek jende xehearen autoestimua pizten du, eta gizartea egituratu, kohesionatu eta mugiarazteko tresna baliotsua gertatzen da. Globalizazioaren parean, bertokoa indartzen da.

Ikuspegi historiko luzeagoaz hobeto preziatuko da herrietako kronika egiten duten aldizkari hauen balioa, baina dudarik ez gure kultur ondarea eta bizitza aberasten dituela ARRASATE PRESSEK. Arrasateko herri aldizkariak bizkor lortu zuen heldutasuna, baina ez da sekula zahartu, bere burua eraberritzen asmatu izan duelako. Ez diot besterik opa, orain arteko bizi luze eta osasuntsua baino! Zorionak, eta ospatu lanear!

“Hurbilekoa albiste bihurtzeak eta bizimodu arruntari duintasuna emateak jende xehearen autoestimua piztu du”

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 6**
Español, Araba etorri, 17 943 79 18 65
- DOMEKA, 7**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 8**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99
- MARTITZENA, 9**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 10**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- EGUENA, 11**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 12**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguaiatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

SAN NIKOLAS EGUNEO BOLOA
Bihar, zapatua, San Nikolas eguneko boloa egingo dute Herriko Plazan. 12:00etan eta 12:30ean.

AKORDEOI LEHIAKETAK
Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Arrasateko Akordeoi Lehiaketak egingo dituzte Amaia Udal Antzokian. Abenduaren 8an, astelehena, amaiera ekitaldia egingo dute Amaian, 11:30ean.

BIG-BANDEN KONTZERTUA
Datorren egubakoitzean, abenduaren 12an, Arrasate Musika Eskolako Big-Band taldeak kontzertua egingo du Txalaparta elkartearen. 18:30ean izango da.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA
Datorren egubakoitzean, abenduaren 12an, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute, 18:30ean, Musika Eskolan.

TALOAK EGITEKO IKASTAROA
Ekin Emakumeak elkarteak taloak egiteko ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. Eman izena lehenbailehen. Doan da.

'LUIA FERNANDA' ZARZUELA
Abenduaren 13an eta 14an, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

AEDren AGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK
2004ko Seaskako egutegiak salgai daude AEDko bulegoan. Hiru eurotan saltzen dituzte.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Martitzenean, abenduaren 2an, *Berria*-ren gaineko bideoa emango dute eta langile batek azalpenak emango ditu Eskola Politeknikoan, 19:30ean. Egunkaria aurrera! plataforma.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Tokiko hedabideen bigarren jardunaldiak

Tokian tokiko hedabideen bigarren jardunaldiak Gesalibar auzoko Aita Menni ospitalean egin zituzten. Hainbat herri aldizkaritako, irratitako eta telebistatako kideek hartu zuten parte. ARKOk antolatu zituen jardunaldiak eta Arrasateko lagun askok lan egin zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Aztartu"



Aztartu, arakatu.
—Oilluak etxazpi guztia aztartu dabe.
—Sasiarte ta errekazulo guztiak aztartu giñuzen, baiña ez giñuan topau ardixa.

GORKA OTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Arantzabalekin 'goiena.net' atariaz

Martitzenean Iban Arantzabalekin egingo dugu berba, 09:30etik aurrera. Arantzabal Goienako Telematika Saileko arduraduna da, eta horren ekimenez *goiena.net* ataria eskura dago Interneten. Martitzenean kaleratu zela astebate beteko denez, balantzea egiteko eskatuko diogu.

Martitzenean, bestalde, Edorta Agirrek sukaldian jarduteko hainbat gomendio emango dizkigu. Gabonak ate joka direla eta, adi entzutekoak izango dira gomendio horiek.



Emakundeko Txaro Arteaga irratian

Emakunde erakundeko Txaro Arteagari egindako elkarrizketa eskainiko dugu martitzenean. Aintzane Gardoki kazetariak GOITBrako egindako elkarrizketa izango da entzungai iluntzeko albistegiaren ondoren herriko irratian.

Zapatu, domeka eta astelehenean, berriz, astean egindako hainbat elkarrizketa eskainiko ditugu. Besteak beste, jostailu ez sexisten inguruan Marije Apodakarekin izandako solasaldia errepikatuko dugu.

HAUGIROA!

| | |
|----------------------------------|--------------|
| MINIMOA Eguaztena, 26 | 2 °C |
| MAXIMOA Domeka, 30 | 16 °C |
| ASTEKO EURIA (l/m ²) | 106 L |

| | Max. | Min. | Euria |
|-----------------|-------|-------|-----------------------|
| Eguaztena, 26 | 12 °C | 2 °C | 40,6 l/m ² |
| Eguena, 27 | 8 °C | 4 °C | 33,5 l/m ² |
| Egubakoitza, 28 | 12 °C | 5 °C | 0,3 l/m ² |
| Zapatua, 29 | 15 °C | 6 °C | 4,1 l/m ² |
| Domeka, 30 | 16 °C | 12 °C | 13 l/m ² |
| Astelehena, 1 | 11 °C | 6 °C | 2,4 l/m ² |
| Martitzena, 2 | 9 °C | 5 °C | 12,4 l/m ² |

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Fermin Muguruza, Marije Apodaka, Urtxintxako kidea; Eusebio Iñarra eta Adoración Gorosabel, Maisu Aranoren gainean; Arantza Ozaeta, Durangoko Azokaz...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazina: efermerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazina
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazina
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Txaro Arteaga

ASTEABIHITZETAN

Pastorala presoei laguntzen

Aurten ere Debagoieneko presoei laguntzeko ekimena prestatzen dabilta artzapezpikuaren kartzeletarako pastorealean. Ekimen horren bitartez, Debagoieneko parroketan eta Caritas erakundeko egoitzetan presoei bidaltzeko arropak eta eguneroko jardunean behar dituzten oinarrizko gauzak batuko dituzte.

Ekimen hori Debagoieneko preso politiko eta sozialei dago zuzenduta.

Loteriako zenbaki konkretuen bila

Arrasaten loteria saltzen duten dendariak pozik daude, salmentak ondo baino hobeto doaz-eta. Gainera, duela gutxi loteriak sari garrantzitsua utzi zuen herrian, eta horrek animatu egin du jendea.

Herritar askok zenbaki konkretuen gainean galdetzen dute. Espainiako printzea maiatzaren 22an ezkonduko dela-eta, hainbat lagunek 22.504 zenbakia eskatu dute. Zenbaki horrez gain, jende askok 36.055 zenbakia eskatu du. Estatu mailan ere zenbaki horrek arrakasta handia du. Madrilgo Doña Manolita bulego ospetsuan zenbaki hori zeukaten, baina agortu egin zaie. Kasualitatez, Arrasaten ere badago zenbaki hori, eta askok deitu dute zenbakirik geratzen ote den galdezka.

Bihotz arazoaren gainean kontzientziatzeko

Eguaztenean, ATCORE organo emaileen elkarteak sinadura bilketa egin zuten Hiper Eroski supermerkatuaren inguruan. Sinadura bilketaren helburua kontzientziazio kanpaina abiaraztea eta organo emaileak erakartzea izan da.

Asko dira gaixorik egon eta transplante baten beharrea dauken lagunak; horretarako, baina, beharrezkoa da jendea organo emailea izatea. Arrasaten, esaterako, bihotzeko transplante egiteko zain dago lagun bat.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Euskal kulturari babesa

Aspaldian mota askotako ustekabeak izan ditugu. Horien artean, Euskal Herriak eta euskalgintzak jasan dituen kolpe gogorak. Euskalgintza ahultzen saiatu dira, baina zelanbait indarberrituta irten da. Beste behin, kaltetutako enpresa, erakunde eta komunikabideak berreraiki dituzte, jende askoren esfortzuar eskerrak, jakina!

Hau irakurri orduko, hasita egongo da Durangoko Azoka. Aurten ere erromesaldi handiak egingo dira hara joateko. Gabonak sasoi oso kontsumistak diren arren, Durangora joatera beste arrazoik asko ere bultzatzen gaituzte: kultur eragileen egoera ikusteko jakin-mina, ezagunekin topo egiteko parada, kulturaz apur bat bustitzeko asmoa, urtean

euskarazko kultura kontsumitu ez izanaren sentsazio txarra kentzea... Hala ere, esan beharra dago Durango ez dela patxadaz erosteko eta lasai ikusteko leku onena. Edo, agian, jarri dioten kokapen berrian, bai!

Inertziagatik, ohituragatik edo dena delakoagatik joaten bagara ere, Durangora joatea apur bat euskal kultura sustatzea eta babestea da. Eta horren beharra dauka. Baina, hobe urteko beste sasoi batzuetan ere babestea.

ASTEKOIRUDIA



GORKA MORRAS

'LUIA FERNANDA' ZARZUELAK IZUGARRIZKO ILARAK SORTU DITU, TXARTELAK EROSTEO


Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak laugarren zarzuela prestatu du. Aurretik, honako hauek antzeztu ditu: *La tabernera del puerto*, *Katiuska* eta *Los Gavilanes*. Arrasatear talde horrek geroago eta lan biribilagoak egin ditu. Modu berean, aurten, Arrasateko Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoaren parte-hartzea

lortu du. Elkartekoak oso gustura daude egindako lanarekin. Eta arrasatearrek oso harrera ona egin diete. Izan ere, *Luisa Fernanda* lau egunean eskainiko dute, eta sarrerak agortzeaz daude. Sarrerak aurretik saldu dituzte, bi egunean, eta Amaia Udala Antzokian izugarrizko ilarak egon dira. //B.



ARRASATE PRESS aldizkariari omenaldia

Joan den asteburuan, Topaguneak tokiko hedabideen inguruko jardunaldiak antolatu zituen Zamudion; hori aprobetxatuta, ARRASATE PRESS aldizkariak 15 urte egin dituela-eta omenaldia jaso zuen. Herri prentsan bidea zabaldu zuen Arrasateko aldizkariak.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak


Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
 - Aglomeratuak
 - Kontratxapatuak
 - Tablexa
 - Ateak
 - Egurrezko leihoak
 - Oin-inguruak
 - Zangoak
 - Aroztegiko osagarriak
- Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com



Edertu
Ile apaindegia • Solariuma

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

KULTURA/ ARRASATE PRESSEk 15 urte

Euskal Herriko herri-aldizkari zaharrenak 15 urteko ibilbidea bete du abenduan

UBANE MADERA

ARRASATE PRESS aldizkariak 15 urte bete zituen martitzenean, abenduaren 2an. Urte asko dira arrasatearren etxeetara iristen. Pausoz pauso eta apurka-apurka garatuz joan den egitasmoaren emaitza da. Oraindik ere urte luzez zuekin garatu gura dugun egitasmoa.

Kaixo, Arrasate; astekari berri bat jai da herri mailako prentsaren mundura, ARRASATE PRESS, euskara hutsean, zuri hobeto informatzeko asmo sendoarekin.

AEDren eskutik plazaratzen gara, Mondragoeko Udalaren laguntza ezin hobeari esker. Gure herriari merezi duen komunikabidea eskaini nahi diogu. Astekari irekia eta bateratzailea izatea nahi dugu. Horretarako euskara aukeratu dugu, geure herriaren elementurik integratzaileena izan daitekeelako.

Horrekin batera ARRASATE PRESS irakurtteraza, atsegina eta praktikoa egin gura dugu. Egitasmo horren inguruan sortu dugun taldea gaztea da eta ilusioz betea.

Gogoan izan, astero-astero zure etxeko buzoian ARRASATE PRESS aurkituko duzu, dohainik, merezi duzulako. Bejondeizula!

Hala aurkeztu zuten ARRASATE PRESS orain dela 15 urte, aurreneko zenbakia atera zutenean. Joxe Arantzabalen zuzendaritzapean, Juan Luis Azkaratek eta Begoña Zubiak osatu zuten erredakzioa; Amaia Garro arduratu zen publizitateaz eta Jose Luis Agote maketazioaz. Orkatz Skaut Taldeak banatzen zuen aldizkaria. Eta, horien atzetik erredakzio kontseilua eta kolaboratzaile ugari egon ziren. 16. zenbakirako batu zitzaizkion hasierako talde hari Goio Arana maketazio lanak egiten eta Joseba Valles argazkilarik moduan.

24 orriekin atera zen kalera, zuri-beltzean, azaleko goiburua izan ezik. Oñatiko Gertu inprimategian inprimatu zuten. Eta harrezkero, (arrazoi garrantzitsuek eraginda asteren baten izan ezik) esandakoa bete du ARRASATE PRESSEk: astero-astero kalean izan da, 24 orrialderekin, herriko informazioa ematen, eta, jakina, guzti-guztia euskara hutsean. Hori bai, ordutik hona dezente aldatu dira gauzak.

LANTALDE ALDAKETAK

Gertatu diren aldaketa guztien artean, akaso nabarmenenak lantaldearen aldaketa eta itxuraren aldaketa izan dira.

Lantaldeari dagokionez, besteak beste, sei zuzendari izan ditu gaur egunera arte: Joxe Arantzabal, Iñaki Mendiguren, Arantzazu Loidi, Bernardo Kortabarria,



ARRASATE PRESSEn ostean etorri ziren Euskal Herriko gaur egungo herri-aldizkari guztiak; emari garrantzitsua izan zen hori.

15 urtean astero-astero iritsi zaie arrasatearrei ARRASATE PRESS euren etxeetara

Lantalde, leku eta itxura aldaketa ugari gertatu dira aldizkarian urte horietan

Orain, multimediarri esker, 'goiena.net'-en ere jaso ditzakegu herriko berriak

Aldaketarik nabarmenenak



1988
ARRASATE PRESS JAIKO ZEN

Abenduaren 2a zen. AEDren eskutik eta zenbait lagunek bultzatuta argia ikusi zuen ARRASATE PRESSEk. Euskal Herrian sortu zen lehen herri-aldizkaria izan zen. Ondo osatutako lantaldearekin eta kolaboratzaile askorekin atera zen.



1993
KOLORA SARTU ZIOTEN

Aldaketa handia izan zen kolorea sartzea. Kalitatea modu berezian zaintzen hasi ziren. Logotipoa ere aldatu zuten. Ez, ordea, aldizkariaren sena eta helburua. Herritarrek astero etxeetan jasotzen segitu zuten 24 orriko euskarazko aldizkaria.



2001
ITXURA BERRIA

Orduantxe gertatu zen aldaketarik nabarmenena. Ohiko aldizkariatik, egunkari itxurako aldizkariara pasatu ginen: orri desberdinak, sail berriak... Eta, herriko informazioa emateaz gain, bailarako jasotzen ere hasi ginen, *Goienkaria*-n.

Marijo Deogracias eta Iker Barandiaran. Gainerako langile guztiak banan-banan aipatzea zerrenda luzeegia litzateke; izan ere, sasoi batean hiru urtean behin lantalde osoa aldatzen zuten; geroago etorri ziren langileen jarraikortasuna eta halako aldaketak.

Horrekin batera, leku aldaketak ere aipatu behar dira. Zeharkale Estalian Udalak zeukan etxebizitza baten jaiotzen aldizkaria; handik Arrasate pasealekuko bulego batzuetara pasatu zen; gero, San Frantziskora, Azoka kalera; eta bukatzeko, Otalorara iritsi ginen.

KOLOREA ETA FORMATU ALDAKETA

Itxurari dagokionez, aldizkariaren 215. zenbakian (ARRASATE PRESSEk bost urte bete zituenean) kolorea sartu zuten. Azalean hasieran, barruan geroago. Aldaketa handia izan zen hori aldizkariarendako. Aldizkariaren sinboloa ere aldatu zuten orduan. Eta kalitateari garrantzi berezia eman zioten.

Baina urte batzuk geroago gertatu zen aldaketarik handiena. Hain zuzen ere, 2001eko urriaren 19an zeharo aldatu zuen itxura. *Goienkaria*-ren (Goienaren) etorreraren ondorioz egin zen aldaketa. Ordura arteko aldizkari itxura utzi, eta egunkari formatura aldatu zen. Zalantza ugari sortu ziren orduan: herritarrek gustuko izango zuten edo ez... Baina, zorionez, aldizkari berriak zaharrak bezain harrera ona izan zuen. Horren trukean, orri handiago eta osatuagoak, maketa berriak, argazki handiak eta sail berriak eman zitzaizkien herritarrei, egunkari itxurako aldizkariarekin. Eta, jakina, ordutik aurrera, ARRASATE PRESSEkin batera, *Goienkaria* bera ere jasotzen hasi ziren arrasatearrek, horrek dakarren aberastasun guztiarekin.

ESKERRAK, GUZTIOI

Bi urte baino gehiago pasatu dira harrezkero. Aldizkariaren berritasunak sendotu eta indartu egin dira tarte horretan. Ikusi dugu jendeak gustura hartzen gaituela etxeetan. Eta, Goienari esker, multimedia alorra landu, eta orain Interneten ere irakur daiteke Arrasateren, Aramaioren... ibarreko herri guztien gainean.

Baina badira aldizkariaren aldatu ez diren gauzak ere. Esaterako, kolaboratzaileak. Gure aldizkariak hasiera-hasieratik izan ditu kolaboratzaile asko, eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du. Dударik ez izan kolaboratzaile barik ezin izango genukeela geure aldizkari hau egin. Eta, jakina, zeuek barik, irakurle barik, ez ginateke ezer izango. Beraz, eskerrak, guztioi, eta espero dezagun etorkizun oparo eta luzea izatea elkarrekin.


UDALA/ Ordainketak egiteko beste modu bat

Ordainketak Interneten edo kutzazain automatikoetan

UBANE MADERA

Udalan egin beharreko ordainketak Interneten edo kutzazain automatikoen bidez egiteko aukera izango da hemendik aurrera. Zerbitzua segurua, konfidentziala eta erabilerraza dela ziurtatu dute.

Administrazioan egin beharreko ordainketak Internet bidez egiteko aukera ipini dute EAEko udal guztien esku. Arrasateko Udalak bat egin du egitasmoarekin eta dagoeneko abiarazi du zerbitzu berria. *Nire ordainketa online* izena du. Horrek esan gura du hemendik aurrera ordainketak helbideratuta ez dituztenek ez dutela zertan udaletxera joan zergak-eta ordaintzera. Bi modu berri dituzte aukeran: Internet bidez edo kutzazain automatikoen bidez egitea ordainketak.



GORKA MORRAS

Zerbitzu berri horrekin ez dago zertan Udaletxera joan behar.

ZER ORDAIN DAITEKEEN

Halako kontuen inguruan sortzen diren zalantzen aurrean, zerbitzu hori erabiltzea erraza, segurua eta konfidentziala dela diote. Bestalde, zerbitzu berria erabiltza ordain daitezkeenak honakoak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Oroko

rrerako isunak, zergak, prezio publikoak eta halakoak.

Hori bai, *on-line* ordainketa mota berria egin ahal izateko beharrezkoa da eskura izatea norberari bidaltzen dioten ordaintzeko abisua, han dauden datuak sartu behar dira-eta Interneten. Era berean, ordainketa sarearen

bitartez egiteko fidantza erakunderen baten ordaintzeko txartelen bat izatea derrigorrezkoa da.

Eta, ordainketa *off-line* edo kutzazain automatikoetan egin ahal izateko, ordainketaren abisua ere beharrezkoa izango da, haren barra-kodea erabili beharra dago-eta.

Gaur zabaldu dute Portaloian Harreman elkartearen denda

UBANE MADERA

Urtero moduan, Gabonak datozela aprobetxatu eta denda ipiniko du gobernuz kanpoko Harreman elkarteak. San Frantziskoko lanak direla-eta, aurten Portaloiko botikaren ondoko lekolean egongo da.

Gaur, barikua, inauguratu dute Harremanen denda. Ohitura den moduan, Goikobalu abesbatzak kantalditxoak egin du horretarako. Eta horren ostean, zabalik egongo da Gabon egunera arte. Honako hauxe izango da ordutegia: lanegunetan 18:00etatik 20:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

HIRUGARREN MUNDUKO PRODUKTUAK

Denda horren helburua honakoa da: Hirugarren Munduko produktuen salmentari lekua egitea, horren bitartez beharra duten lekuetan aberastasun-iturri izango diren enpresak eta lanpostuak sortzeko eta bizimodu duina garatzeko baldintzak sortzeko.

Batez ere Afrikako eta Hegoamerikako produktuak salduko dituztela adierazi digu Harreman elkarteak kide Andoni Uribeetxeberriak. Hain zuzen ere, artisauntzarekin lotutako produktuak: jaiotzak, jantziak, eskumuturrekoak, lepokoak... aurten ez dute margo-lanik salduko. Hori bai,

urtero moduan, batutako diru guztia Kolonbiara bidaliko dute, Harreman elkarteak San Clementen egiten dabilen proiektuarendako, alegia.

SAN CLEMENTEKO PROIEKTUA

Hain zuzen ere, Andeetako nekazaritza-ingurune bati lagundu gura diote Harremanekoek. Hala, han dauden gazteei eta helduei nekazaritzako eta abelazkuntzako teknologien eta nekazaritzako elikagaien teknologiarren gaineko hezikuntza emango diete. Horren harira, Arrasaten batuko duten dirua San Clemente institutuko lantegiak hornitzeko erabiliko da. Esan beharra dago institutuko zuzendaria Sebastian Uribeetxeberria aretxabaletarra dela. 25 urte baino gehiago daramatza aretxabaletarrak Kolonbian.

HARREMANEN GAINEAN

Garapenerako gobernuz kanpoko erakundea da Harreman-Arrasateko Hirugarren Mundu Taldea. Izenak esaten duen moduan, Hirugarren Munduari laguntzea da elkartearen helburua. Hona-koak dira Harremanen jardura nagusiak: kanpo-zorra ezabatze-ko eta 07aren aldeko kontsulta; Eroskin dagoen bidezko merkataritzaren denda; Mundukide Fundazioa eta Elkartasunaren Eguna antolatzea beste erakunde batzuekin batera.

Gabonetarako postalak atera ditu Belenzaleen Elkarteak


U.M.

Arrasateko Belenzaleen Elkarteak Gabonetako postalak atera ditu, saltzeko. Batzen duten dirua aurtengo jaiotza ipintzeko erabiliko dute. Gabonetako kantu herrikoiak idatzi dituzte postalatan.


Iazko jaiotzaren argazkiekin egin ditu postalak Arrasateko Belenzaleen Elkarteak. Postalen barruan, berriz, Gabonetako kantu herrikoiak idatzi dituzte, gaz-

telaniaz eta euskaraz. Tartean, San Andres elizako apaiz lagunkide Jose Maria Mendizabal zenak egindako konposizio bat ere bada. Saltzeko egin dituzte postalok, jaiotzarako dirua lortzeko. Hala, gura duenak San Juan parrokiaren eta San Andresko elizan eros ditzake egunotan.

Bestalde, Belenzaleen Elkarterako bazkideak lortzeko egiten dabilzan kanpainaren gainean adierazi digute orain arte bide onetik doala. Antolatzaileak pozik daudela.



Elkarteak atera dituzten Gabonetako postalak. Arrasate, 2007-2008ko Gabonak.



Bedoñarrak jaietan asteburuan

Bihar hasi eta astelehenera arte, Bedoña auzoko jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, bihar, zapatua, 17:00etan Doke Txapelketa jokatu dute eta 18:30ean luntxa izango da Loramendi elkartearen. Domekan, 11:00etan Txatxilipurdirekin jolasteko aukera izango dute umeek; 15:30ean, berriz, euskal jokoak izango dira; 17:00etan, txokolate-jana; 18:00etan, mus eta briska txapelketak eta 21:00etan, auzo afaria Errastikon, bertsolariekin eta dantzariekin. Eta astelehenean, besteak beste, 13:00etan meza nagusia izango da eta haren ostean dantza-saioa.

LABUR

Hiru zerga ordaintzeko epea

Udal hilerriko panteoien mantentze-tasaren, ur-hornidura eta zabor biltzea tasaren eta espaloien pasabidearen eta leku erretserbaren tasaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea abenduaren 31n bukatuko da.

Euskaraz ikasteko eskubidearen alde

Mondragon Unibertsitatean euskaraz ikasteko eskubiderik ez dutela salatzen protesta ekimenak egin zituzten martitzenean (hilak 2) Eskola Politeknikoan. Ikasle Abertzaleek deitu zituzten ekimenok. Ekimenekin bat egin zuten ikasleek artean testu bat adostu zuten errektoretzara bidaltzeko; eta gero, manifestazioa egin zuten ehun bat lagunek. Besteak beste, salatu zuten bigarren ikasturtetik aurrera, ikasgai asko gaztelaniaz bakkirik ikas daitezkeela. Gaineratu zuten matrikulatzeko orduan, unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituela ikasgai guztiak eta gero ez duela esandakoa betetzen.

HEZKUNTZA/ 0-3 urte bitarteko hezkuntza

Partzuergo barik ezin da 0-3 urte bitarteko hezkuntzarik eskaini Arrasate Herri Eskolan

UBANE MADERA

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartek zenbait zehaztapen egin gura ditu 0-3 urte bitarteko hezkuntza dela-eta. Besteak beste, argitu gura dute derri-gorrezkoa dela Udalaren parte hartzea eskaintza hori lortzeko; izan ere, partzuergoan derrigor sartu beharko lukete.

Joan den astean eta Arrasateko alkatearen esanei kasu eginez, iragarri genuen Arrasate Herri Eskolako 0-3 urte bitarteko hezkuntza eskainiko duela datorren urtean.

Orain, Joxemiel Aranzadi eta Karmel Uribarren Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkartearen ordezkariekin berbetan izan gara eta zer edo zer zehaztu gura izan dute gai horren gainean.

PARTZUERGOAN SARTU BEHARRA

Hasteko, zera diote: "Hurrengo urtean 0-3 urte bitarteko eskaintza abiarazteko, Udalak partzuergoan sartu beharra dauka nahi eta nahi ez. Hori da bidea, eta hori dio EUDELeK eta Jaur-laritzak adostutako hitzarmenean ezarritako protokoloak. Hori benetakoa izatea nahi dugu. Hortaz, 0-3 urte bitarteko hezkuntza eskaintza izango dugu, baldin eta Udala partzuergoan sartzen bada".

Edozelan ere, jakinarazi digute harremanetan jarri direla Udaleko ordezkariekin 0-3 urte bitar-



Arrasate Herri Eskolan 2 urteko eta hortik aurrerako umeak zaintzeko zerbitzua dago, Bedoñaben.

teko hezkuntzaren gaia lantzeko. Esaterako, oraingo astean batzarrak egin dute alkatearekin.

Ez dute ulertzen EAKo ordezkariak azkeneko osoko bilkuran esandakoa; hark esan zuen ez zue-

la horren argi ikusten gai horretan Udala inplikatu beharra.

BADAGO ESKARIA

Arrasate Herri Eskolak 0-3 urte bitarteko hezkuntzarako duen

eskariaren gainean, berriz, esan digute iaz 50 lagunek-edo eman zutela izena; hortaz, badagoela premia.

Bestalde, jakinarazi digute 2004ko uztailean bukatuko dela

Udaleko Haur Eskola dela-eta Arrasateko Udalak Umezaintzarekin duen hitzarmena. Hala, 0-3 urte bitarteko hezkuntzaren eskaintza berriro ere Umezaintzaren eskuetan bakarrik geratuz gero, Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteko ordezkariak honako hau uste dute: "Gerta dakiguke beste lau urtean ez egotea eskaintza publikorik Arrasate Herri Eskolan 0-3 urte bitarteko hezkuntzan. Eta ikusten dugu eskola publikoaren eskaintzarik gabe 0-3 urte bitarteko tartean, ez dela jokatu aukera berdintasunez. Udaleko Haur Eskolan 0-3 urte bitarteko hezkuntzan dabilzan umeek gero Arizmendiko ikastetxeetan segitzen dute ikasten".

Bestalde, etorkizunean etorriko diren etorkinak kontuan hartuta, uste dute garrantzitsua izango litzatekeela haien integrazioa ziurtatze aldera euskal eskola publikoa indartzea 0-3 urte bitarteko hezkuntzatik. Gainera, lehen esandako moduan, 0-3 urte bitarteko hezkuntza eskaria ere badago Arrasate Herri Eskolan. Eta argi utzi gura izan dute eurek nahi dutena dela Arrasate Herri Eskolan eskaintza publikoa egotea, besterik dagoen moduan. "Asmoa ez da inori ezer kentzea; baizik eta, eskaera eta beharra egonda, aukera egotea ere 0-3 urteko hezkuntza publikoa egoteko Arrasate Herri Eskolan, hain zuzen ere".

MANDIO

Garai bateko Arantzazu

Martitzenean, abenduaren 9an
20:30ean

Aurkezlea:
Goiatz Arana


Goitb
Goiena Telebista

Ikusiko
duzu!



SAN FRANTZISKO XABIER EGUNA OSPATU ZUTEN EGUAZTENEAN

San Frantzisko Xabier eguna ospatu zuten Arizmendiko ikasleek eguaztenean. Egun berezia zela-eta, Arizmendiko hainbat gunetan jaia egin zuten. Ikasleendako aitzakia ezin hobea izan zen egunero-ko martxa ahaztu eta ekitaldi bereziak egiteko. Gazteluondoko gunean neska-mutikoak dantza baten harrapatu genituen jolas orduan. Gaztetxoek, antzerkia edukitzeaz gain, txistorra jateko aukera ere izan zuten. Lastima, gu berandu iritsi ginen.



EUSKARAZKO IKASLEAK LOREAK NOLA ZAINDU IKASTEN

AEK-ko eta Udal Euskaltegiko ikasleek eskola berezia izan zuten azaroaren 25ean, martitzena. Zahar Berrik antolatuta, AEDko lokalean loreak nola zaindu ikasteko ikastaroa izan zuten. Ikastaroa Maite loradendako Maitek eman zuen, eta 50 lagun inguru izan ziren. Ikastaroa aberasgarria izan zen, besteak beste, lorezaintzaren gainean hainbat aholku jasotzeaz gain, negu partean barruko nahiz kanpoko loreak nola zaindu irakatsi zuen-eta. Ikasitako guztia ikasita, argi dago AEK-ko eta Udal Euskaltegiko lagunei aurtengo neguan loreren bat hiltzen bazaie, ez dutela inongo aitzakiarik izango.



EKUADORTIK ETORRITAKO FAMILIARI ONGIETORRIA

Mariak ongietorria egin gura dio Ekuadortik etorri den familiari. Alberto orain dela bi urte etorri zen Arrasatera, eta bere ametsa familia hona ekartzea zen. Ametsa betetzea lortu zuen, eta dagoeneko familia guztia du Arrasaten; hain zuzen ere, Angelita, Joana, Paola eta Luis Fernando agertzen dira argazkian. Familiako gaztetxoek urtebete daramate euskara ikasten, eta dagoeneko ondo moldatzen ei dira.



ERRETIRATUAK INDUSTRIA ERAKUSKETAN BISITARI

Industria erakusketara egunero joaten da jendea bisitan. Astelehenean, adibidez, Durangoko erretiratu talde bat izan zen erakusketa ikusten. Pozik entzun zituzten azalpenak, eta gainera irakasle ona izan zuten, Bixente Barandiaran errementaria izan zen-eta azalpenak ematen. Bixente Barandiaranen sutegia erakusketan dago, eta lan tresna horren funtzionamendua azaltzeko ez dago Bixente baino aproposagorik, urte askoan egin du-eta lan tresna horrekin. Egunetik egunera erakusketa gero eta osatuago dago.



OLAIA MONDRAGON

Mondrak eta Urolak partidu parekatua jokatu zuten; Urolako neskek, baina, gol bateko aldearekin irabazi zuten (2-3).

FUTBOLA

Mondrak balio handiko hiru puntu ekarri zituen Errotazar futbol zelaitik

Debako Amaikak Bat taldearen kontra 1-2 nagusitu zen talde zuri-morea

XABIER URZELAI

Arrasateko futbol taldea goiko postuetan da berriro ere. Mondragoetarrak hirugarrenak dira, Zarautzen eta Elgoibarren atzetik. Joan den astean bi talde horiek berdindu egin zuten, eta Mondrak irabazi; horri esker, liderra puntu batera baino ez dago. Bihar, Berio izango da Atxabalpen bisitari.

Hurrengo bi jardunaldietan Mondrak etxean jokatu du, eta Arrasateko taldeak aprobetxatu egin behar du hori. Bi partidu horiek, baina, ez dira errazak, maila oneko kontrarioak izango dira-eta Atxabalpen. Oraingo asteko kontrarioa zortzigarren postuan dagoen Berio taldea da. Mondrak Berio baina bi puntu gehiago baino ez ditu, eta bi taldeak goiko postuetan finkatu guran dabilta.

Datorren asteko kontrarioa, berriz, Urola izango da. Mondrak ondo ezagutzen du Zumarragako taldea, erregional mailako azken

urteotan bi talde horiek ibili dira-eta goiko postuetatik lehian. Urola erdialdean dago sailkapenean, baina Zubiaren mutilek ondo baino hobeto dakite talde sendoa dela. Bi talde horien kontra irabaztea da Mondrak epe motzera daukan helburua.

DEBAN, HIRU PUNTU

Mondrak egin beharrekoa egin zuen Debako Amaikak Bat taldearen zelaietan. Ondo jokatzeko ia ezinezkoa zen, Errotazar futbol zelaiak ez du-eta horretarako aukerarik eskaintzen. Edozelan ere, ondo jokatu gabe eskuratutako puntuek berdindu balio dute.

Lehenengo zatian debarrak izan ziren hobeak. Mondrari kosta egin zitzaion futbol zelaira moldatzea, baina Amaikak Batekoek ez zuten abantaila hori aprobetxatu. Lehenengo zatia gol gabe amaitu zen; bigarrenetan, berriz, hiru gol izan ziren ikusgai. Lehen Iker Laspiurrek egin zuen (1-0). Amaikak Batek, baina, berehala erantzun zuen; epaileak Mon-

draren kontrako penaltia adierazi eta debarrek partidua berdindu zuten (1-1). Parekotasuna markagailuan, eta baita jokoan ere. Aspaldian, baina, sasoi beteetan dabil Jon Muruamendiaraz, eta joan den astean ere Arrasateko aurrelariak gola egin zuen, gol erabakigarria, gainera (1-2).

NESKEK UROLAREN KONTRA GALDU

Jon Loitiren eta Iñigo Zabaloren neskek galdu egin zuten zapatu goizean. Norgehiagoka ondo hasi bazuten ere, arrasatearrek apurka-apurka behera egin zuten, eta Zumarragako taldeak ondo baino hobeto aprobetxatu zuen hori. Mondra aurreratu zen markagailuan; Maitane Roak egin zuen gola, partiduko lehenengo minutuetan, gainera. Lehenengo zatia amaitu aurretik, baina, Urolak berdintzea lortu zuen. Bigarren zatian, Mondrako nesken gaitasunaren aurrean, Urolako esperientzia erabakigarria izan zen. Galdu egin zuen Mondrak, zeukan guztia emanda, baina.

Markel Blanco gaztea azkarrena izan zen Laudioko lasterketan

X.U.

Estatu mailako lasterkari asko izan baziren ere, Markel Blanco lasterkari mondragoetarra azkarrena izan zen Laudioko krosetan. Hamalau urteko atletak 3.440 metroetako lasterketan hartu zuen esku, eta beste behin, seku-

lako dohaina daukala erakutsita, lehena helmugaratu zen. Beteranoen mailan, Javier Mentxaka lasterketa polita eginda bosgarrena helmugaratu zuen; Cesar Diez, berriz, 33.a izan zen. Beterano mailako lasterkariak ia bost kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten. Aipatzekoa da Mon-

dragoeko atletek lortutako markak meritu handikoak direla, atleta askok hartzen dute-eta parte Laudioko krosetan.

Bestalde, Santamasetako 26. koadrilen arteko lasterketa abenduaren 14an (domeka) korrituko da. Aurten, Enrike Kabiketa memoriala izango da.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

SAILKAPENA

| A MULTZOA | P | J |
|-------------------------|---|---|
| 1. Rayo Aldeano | 8 | 5 |
| 2. Iriztu Taberna | 8 | 5 |
| 3. Alpagat - Estutu!!! | 7 | 4 |
| 4. Abokajarro | 6 | 5 |
| 5. Aloña Taberna | 6 | 5 |
| 6. You Know | 6 | 5 |
| 7. Saukelu Scream | 6 | 4 |
| 8. AT Celaya | 5 | 4 |
| 9. Betrayer | 4 | 4 |
| 10. Bikain Akademia | 2 | 4 |
| 11. Koka Juniors | 0 | 5 |
| 12. Billy & The Cowboys | 0 | 4 |
| 13. KPPC | 0 | 4 |

B MULTZOA

| B MULTZOA | P | J |
|-------------------------|---|---|
| 1. AC Surcos | 8 | 4 |
| 2. Dribling | 8 | 5 |
| 3. Goma-2 | 7 | 5 |
| 4. Lasagabaster | 7 | 5 |
| 5. Etixerat | 6 | 4 |
| 6. Dream Team | 5 | 5 |
| 7. Tomahawk | 5 | 5 |
| 8. Errasti Kristaldegia | 4 | 5 |
| 9. Speed Boys | 4 | 5 |
| 10. El Ekipo A | 2 | 5 |
| 11. Fuxion | 2 | 5 |
| 12. Whiskeria | 0 | 5 |

EMAITZAK

| A MULTZOA | EMAITZAK |
|---------------------------------|----------|
| Betrayer - Rayo Aldeano | 3-7 |
| You Know - Koka Juniors | 10-3 |
| Iriztu taberna - Saukelu Scream | 3-2 |
| Alpagat-Estutu! - Aloña Taberna | 3-2 |
| Abokajarro - KPPC | 22-2 |

| B MULTZOA | EMAITZAK |
|---------------------------------|----------|
| AC Surcos - Dream Team | 11-4 |
| Etixerat - Errasti Kristaldegia | 15-1 |
| Goma-2 - Whiskeria | 20-1 |
| Fuxion - Tomahawk | 3-2 |
| El Ekipo A - Speed Boys | 4-7 |
| Dribling - Lasagabaster | 3-3 |

ORAINGO ASTEBURUAN DESKANTSUA

HURRENGO JARDUNALDIA DATORREN ASTEBURUAN JOKATUKO DA

Zaldibarko Txapelketak etenaldia izango du oraingo asteburuan, jendeak hiru eguneko zubia kanpora joateko aprobetxatzen du-eta. Gabonak gain-gainean daude, eta txapelketako lehenengo balorazioa egiteko momentu aproposa izan daiteke. Talde ia gehienek bost partidu jokatu dituzte, eta txapelketa luzea bada ere, bost partidutan egindakoak talde bakoitzaren nondik norakoa argi uzten du.

Talde batzuek ondo baino hobeto hasi dute txapelketa. Beste talde batzuek gura baino zailtasun gehiago dituzte, eta Koka Juniors taldea da adibide argia. Aurreko urteotan txapelketaren azken txanparaino lehian ibili dira. Aurten, baina, ezin izango dute horrenbeste egin; izan ere, joan den astean jokalaririk gutxi joan ziren partidura, eta talde txapelketatik kanpo geratu da. Beste talde batzuk ere justu-justu dabilta.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Berio
Preferente. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
Urola - Mondra
Ohor. gazt. Zapatuan. 18:00. Zumarragan.
Antiguoko B - Arrasate
Ohor. kadet. Zapatuan. 10:30. Donostian.
Arrasate - Almen
Infantilak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
Lagun Onak - Mondra
Neskak. Domekan. 11:00. Azpeitian.

ESKUBALDIA

AGR Arrasate - Hegialde
Lehen territ. Domekan. 12:00. Iturripen.
Leizaran - Gatz Museoa Jakion
Gazteak. Zapatuan. 11:30. Allurralden.

SASKIBALDIA

Cafes Aitona - Ointxe Arrasate
Seniorrak. Zapatuan. Zehaztu gabe. Donostian.

ERRUGBIA

Arrasate - Arratiako Txekorrak
Seniorrak. Zapatuan. 11:30. Garagartzan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Ohor. gazt. Mondra - Mariño. 0-2
Big. gazt. Ikasberri - Arrasate. 3-2
Ohor. Kadet. Arrasate - Miren bihotza. 1-1
Big. Kadet. Arrasate B - Aretxabaleta B. 3-3
Neskak. Mondra - Urola. 2-3

SASKIBALDIA

Juniorkak I. Arrasate - Artisan Tolosa. 50-56
Juniorkak II. Arrasate - Bergara. 49-42

ERRUGBIA

Gazteak. Arrasate - Zarautz. 14-3
Kadeteak. Arrasate - Durango. 36-0

ESKUBALOIA

AGRk puntu baliotsua lortu zuen Usurbilen kontra; garaipena, baina, eskura izan zuen

Mondragoeko eskubaloi taldeak 19-19 egin zuen Urola liderraren kontra

XABIER URZELAI

Liderraren kantxatik puntu batekin itzultzea emaitza ona da. AGRko mutilak, baina, ez ziren gustura bueltatu; izan ere, mondragoetarrei aukera on batek egin zien ihes. Liderrak baino hobeto jokatu zuten, baina ez zuten irabazi.

Aurreko jardunaldian galdu eta gero, AGR Arrasateko mutilak gauzak ondo egiteko asmoz joan ziren Usurbilera. Arrasatek ondo egin zion aurre liderrari; mondragoetarrek aurretik izan ziren norgehiagoka ia guztian, baina Pitxi Herreroren mutilak ez ziren partidua erabakita uzteko gai izan, eta azkenean Usurbilek berdintzea lortu zuen.

MARKAGAILUAN AURRETIK

AGR Arrasatek ondo estutu zuen liderra. Usurbilgo taldeak egin zuen partiduko lehenengo gola, baina hortik aurrera mondragoetarrek izan ziren markagailuan aurretik. Lehenengo zatia amaitu

zenerako, baina, Usurbilek berdindu egin zuen (12-12).

Bigarren zatiko lehenengo gola ere Usurbilek egin zuen. Orduan, baina, lehenengo zatian moduan, Mondrak aurrera egin zuen markagailuan, eta denbora luzean izan ziren 2-3 goleko aldearekin. Arrasateko taldea, baina, ez zen azken kolpea eman eta norgehiagoka erabakita uzteko gai izan. Usurbilek partidua berdintzeko aukera izan zuenean, horrela egin zuen (19-19).

DERBIAN, NAGUSIAK NAGUSI

Zapatu arratsaldean, Arrasatek bigarren territorial mailan dituen bi taldeek elkarren kontra jokatu zuten. Arrasate B garaipen gosez zen, aurreko derbian talde gaztea nagusitu zen-eta. Zapatuan, adinez nagusiago zirenek hobeto jokatu zuten, eta 7 goleko aldearekin irabazi zuten (Arrasate C 14 - Arrasate B 21).

Gazte mailan, Gatz Museoa Jakion taldeak 35-22 galdu zuen Donibaneren kontra. Kadete mailan, berriz, Urola ez zen partidura azaldu.



OLAIA MONDRAGON

Bigarren territorial mailako derbian Arrasate B nagustitu zen (14-22).

Ointxe Arrasatek ondo jokatura ere galdu egin zuen Iruñean (68-61)


X.U.

Ointxe Arrasate Saskibaloitza Taldeak ondo jokatu zuen Iruñeko Erro y Eugi taldearen kontra, baina Gorka Zurutzak zuzentzen duen taldeak soberan izan zituen azken bost minutuak. Izan ere, nafarrek, estututa, markagailuari buelta eman zioten.

Azkeneko bost minutuetan behera etorrita galdu zuen Ointxe Arrasatek Erro y Eugiren kantxan. Norgehiagoka garrantzitsua zen, bi talde horiek beheko mailara ez jaisteko lehen ibiliko dira-eta. Orain lortutako puntuak, gainera, jaitsierako faserako baliagarriak izango dira.

Ibarreko jokalariz osatutako taldea ondo hasi zen jokatzeko; defentsa ona oinarri moduan edukita, Ointxeok erraz aurreratu ziren markagailuan. Horrela, 18. minutuan Arrasateko taldeak 10 puntuko aldea zeukan (24-34). Atsedenaldiaren ostean, gauzak ez ziren askorik aldatu, eta hirugarren laurdenean ere Arrasateko taldea aurretik izan zen (36-46, 27. minutuan).

Hortik aurrera, baina, gauzak okertzen hasi ziren, eta nola gainera. Nafarrek gogortu egin zuten



OLAIA MONDRAGON


Ointxe Arrasatek Cafes Aitona Askatuak taldearen kontra jokatu du asteburuan.

jokoa, eta epaileak ez zuten joko gogor hori eteteko erabakirik hartu. Horri esker, ordura arte ondo baino hobeto ibili zen Arrasateko defentsa apurto egin zen. Gainera, kontrarioak ondo aprobetxatu zituen Ointxeok jaurtiketa libreetan egindako hutsak. Horri guztiari esker, Nafarroako taldeak aurre hartu zuen mar-

kagailuan, eta zazpi puntuko aldearekin nagusitu ziren (68-61).

Oraingo asteburuan, Ointxe Arrasatek liderraren kontra jokatu du. Irabaztea oso zaila dela ikusita; Arrasateko taldearendako errentagarriagoa izango da partidua horretan jokalaria gazteei minutuak eman, eta taldea sendotzen ahalegintzea.

FOTOKIROLA



Iban Galan Euskadiko Txapelkun, Bergaran

Joan den asteburuan Euskadiko Karate Txapelketa jokatu zuten Bergaran, eta Iban Galan onena izan zen 65 kilo baino gutxiagokoen mailan. Arrasateko beste hiru ordezkariak ere txapelketa ona egin zuten: Goizeder Cavallero hirugarrena izan zen 75 kilo baino gutxiagokoen mailan; kadetetan, pisu ezberdinetan, Carlos Sanchezek eta Jon Rodriguezek ere brontzea eskuratu zuten. Euskadiko Selektioarekin parte hartzeko erakusleho ezin hobea izan zen Bergarako Txapelketa. /X.U.

N&N Sol

Estetika zentroa

Ferrerias kalea 28, behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 64 57

GABONETARAKO ESKAINTZAK

Hogei euroko erosketak egitean, Gabonetan zozketatuko ditugun bi saskietarako zenbakia emango dizugu



- Koloredun kita (begi-itzala, ezpainenako barra eta makillajea): 26€

- Perfumeak: 10 €



TRATAMENDU BERRIAK

- Pan Perim: Ekialdeko metodologian oinarritutako estresaren aurkako tratamendua.




- Adinaren aurkako tratamendua (Age-Repair): balorazio pertsonala egiten duten probek lehenengo saiotik erakusten dute tratamenduaren eraginkortasuna.

- Azala eta zelulak biziberritzeko tratamendua.

- Aurpegirako kita (esnea, tonikoa, krema eta aurpegi maskara): 36€



- Gorputzerako kita (exfoliantea eta gorputz-esnea): 26€



ALDEDI

MUSIKA/ Arrasateko Akordeoi Lehiaketak

Hauspoz elkarteari esker, akordeoi doinuak nagusituko dira asteburuan Arrasaten

IKER BARANDIARAN

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak Arrasateko Akordeoi Lehiaketak antolatatu ditu. Orain dela 24 urte, Gipuzkoako Lehiaketa antolatzen hasi zen; eta orain dela 11 urte, Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa. Orduetik hona, lehiaketak hobetuz joan dira.

Guztira, Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak Arrasaten bost ekitaldi nagusi antolatu ditu: Arrasate Hiria Nazioarteko XI. Lehiaketa, Gipuzkoako XXIV. Lehiaketa, Gipuzkoako XVI. Jaialdia, Variettes I. Akordeoi Lehiaketa eta Akordeoi Orkestra Lehiaketa. Azken bi horiek lehenengo aldiz antolatu dituzte.

Bihar, zapatua, zortzi musikaririk Variettes Lehiaketan hartuko dute parte. 22:00etan izango da, Mondragon Hotelean. Folklore, tangoak eta beste hainbat musika estilo uztartuko dituzte. Epaimahaia lau euskaldunek osatuko dute.

Bestalde, bihar, zapatua, Akordeoi Orkestra Lehiaketa egingo dute Amaia Udal Antzokian. 18:30ean, Beasaingo Loinatx Orkestra eta Hernaniko Musika Eskola Orkestra maila ertainean lehiatuko dira. 19:30ean, oster, Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak eta Orquesta D'Acordions de Sabadellek har-



Lehiaketen aurkezpenean, Hauspoz elkarteko, Udaleko eta SUDCeko ordezkariak hartu zuten parte.

tuko dute parte maila gorenean. Orkestra horiek akordeoilariak, perkusio jotzaileak eta zuzendariak osatuko dituzte. Ezin izango da beste musikaririk egon.

Nazioarteko Lehiaketa gaur, egubakoitza, hasiko da eta astelehena arte iraungo du. Kontzertu guztiak Amaia Udal Antzokian egingo dituzte. Besteak beste,

Errusiako, Poloniako, Finlandiako, Serbiako, Alemaniako, Txinako, Kroaziako eta Euskal Herriko musikariak etorriko dira. Bitxikeria moduan, Philip-

pe de Ezkurra euskalduna hirugarren aldiz izango da lehiaketan. Nazioarteko eta Gipuzkoako lehiaketetako epaimahaia punta-puntako musikariek osatuko dute: Carlos Iturralde (Euskal Herria), Friedrich Lips (Errusia), Owen Murray (Escozia), Matti Rantanen (Finlandia) eta Vojin Vasovic-ek (Jugoslavia), hain zuzen ere.

ESPAINIako ESTATU OSOKO MUSIKARIAK Gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa egingo dute Amaia Udal Antzokian. Lehiaketaren izenak hori dioen arren, Espainiako Estatuko musikariek ere hartuko dute parte: hau da, euskaldunetz gain, Madrilgoek, Segoviakoek eta Valladolidekoek, hain zuzen ere.

Asteburuan beste hainbat ekitaldi egingo dituzte. Iazko Nazioarteko Lehiaketa irabazi zuen Sergei Osokin errusiarra hainbat kontzertu ematen dabil Euskal Herrian. Domekan, abenduaren 7an, emanaldia egingo du Arrasateko San Juan Bautista elizan, 20:00etan. Egun berean, domekan, Bouquet taldeak kontzertua egingo du Kajoi tabernan, 23:30ean. Arizmendi Ikastolan ere saioak egingo dituzte.

Aurten ere antolatzaileek sari garrantzitsuak emango dituzte lehiaketa horietan, eta musikariak ezagutzera emango dituzte.

Arrasateko Musika Eskolaren bi kontzertu

I.B.

Datorren egubakoitzean, abenduaren 12an, Arrasateko Musika Eskolak bi kontzertu egingo ditu. Big-Band taldeak emanaldia egingo du Txalaparta elkartean eta eskolako ikasleek Musika Eskolan.

Arrasateko Musika Eskola gogor dabil aspaldian, eta ia astero emanaldiak antolatzen ditu. Datorren egubakoitzean, abenduaren 12an, bi kontzertu egingo dituzte. Batetik, eskolako Big-Band taldeak Txalaparta elkartean joko du, gastronomia elkarte horren 25. urteurrenean, 18:30ean.

Big-Band taldea hogeitaz lagunek osatzen dute: hiru saxo altu, bi saxo tenore, saxo baritono bat, lau tronpeta jotzaile, lau tronboi jotzaile, piano jotzaile bat, baxu bat, gitarra elektriko bat, bateriak eta perkusio jotzaile batek.

Taldeko zuzendaria Zigor Martinez da, Soraluzen bizi den

bergararra. Martinez Arrasateko Musika Eskolako klarinete, saxofoi eta hizkuntza musikaleko irakaslea da. Oso gustura dabil proiektu berri horretan.

BROWN, REDDING, MANCINI...

Big-Band taldeak honako kantuek joko ditu: *Satin Doll*, *Blues in the night*, *Take the "A" Train*, *How high the moon*, *Hawaii Five-O*, *Moon River* eta *I got you (I feel good)*, besteak beste. Hain zuzen, honako musikari esanguratsuen kantuek: Duke Ellington, Henry Mancini, Otis Redding, James Brown eta beste batzuenak.

GABONETAKO IKASLEEN KONTZERTUA

Bestalde, egun berean, abenduaren 12an, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute Musika Eskolan. Urtero egiten duten kontzertu horretan ikasle mordoak batek hartuko du parte, eta edonor joan ahal izango da kontzertua entzuteran.



Arrasateko Musika Eskolako Big-Band taldeak Txalaparta elkarteko urteurrena alaituko du.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

IKUSKIZUNA/ Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak 'Luisa Fernanda' zarzuela egingo du

Ehun bat arrasatearri esker, zarzuela izango da berriro Amaia Udal Antzokian

IKER BARANDIARAN

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak Federico Moreno Torrobaren *Luisa Fernanda* zarzuela eskainiko du. Hain zuzen, hilaren 13an, 14an, 19an eta 20an egingo dute, Amaia Udal Antzokian. Egubakoitzerako -hau irakurri orduko- sarrera ia guztiak agortuta egongo dira.

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak urteroko erronkari gogor eutsi dio. Azkeneko lau urteotan lau zarzuela antolatu eta antzeztu ditu: 2000n, *La Taberna del Puerto*; 2001ean, *Katiuska*; 2002an, *Los Gavilanes*; eta aurten, *Luisa Fernanda*.

Joan den egubakoitzean, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak, Arrasateko Musika Eskolako eta Udaleko ordezkariak prentsurrekoa egin zuten horren guztiorren berri emateko. Honako hau -*Luisa Fernanda*, hain zuzen ere- orain arte egin duten zarzuela arrasatearra izango dela azpimarratu zuten. Hain zuzen ere, aurten, lehenengo aldiz, Arrasateko Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak -zarzuelarako propio sortu dute- esku hartuko du. Arrasateko Orkestra Alfredo Gonzalez de Chirlaque bergararrak zuzenduko du.

Horrez gain, aurtengo zarzuelan erabiliko dituzten jantzi guztiak eta dekoratua arrasatearrek egin dituzte. Arrazoi horre-



Prentsaurrekoan, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak, Udaleko eta Arrasateko Musika Eskolako ordezkariak parte hartu zuten.

gatik, antolatzaileak harro eta pozik daude.

Moreno Torrobak idatzitako zarzuela horretan, gerra karlistan -Isabel II.aren erregealdian- jazotako maitasun istorioa kon-

tatuko dute. Kontakizun hori Extremadura eta Madril artean kokatzen da.

Ikuskizun hori ondo egiteko, aktoreak eta musikariak aspalditik entseatzen dabilta, eta guz-

tira ehun lagun baino gehiagok hartuko dute parte. Ia guztiak arrasatearrak dira. Horrek ikusmina piztu du eta, gainera, arrasatearrek zarzuela oso gustuko dutenez, askok eta askok txarte-

lak erosteko nahikoa lan egin behar izan dute.

IZUGARRIZKO ILARAK

Astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, 18:00etatik 20:00etara, Amaia Udal Antzokiko txarteldegian zarzuelarako txartelak saldu zituzten, eta arrasatearrek izugarritzko ilarak egin zituzten. Hain zuzen ere, sarrera 15 euro kostatzen da, eta aurten, lehenengo aldiz, sarrera bakoitzak bere eserlekua izango du.

Lau saio egingo dituzte. Datoren zapatuan, abenduaren 13an, lehena egingo dute, 19:30ean. Hala ere, parte hartu duten lagunendako eta antolatzaileendako izango da. Horrez gain, abenduaren 14an, 19an eta 20an ere egingo dute ikuskizuna. Egubakoitzerako -hau irakurri orduko- ez dakigu sarrerarik geldituko den.

BESTE BI ZARZUELA AURREIKUSITA

Bestalde, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak oso pozik dago orain arte ikuskizunek izan duten harrerarekin. Are gehiago, elkarrekin Tere Gonzalezek datoren bi urteetan zein ikuskizun egin gura zituzten aurreratu zuten. 2004an, *El huésped del sevillano* zarzuela egin gura dute; 2005ean, ostera, Jesus Guridiren *El Caserío*. Azken hori euskaraz abestuko dutela aditzera eman zuten. Ea Arrasateko Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak zer-nolako estreinaldia daukan!

Erotu egin zarete?

Ez dakizue eskaintza bereziak ditugula?



MAYA ARRASATE



Zarugalde 10 Tel.: 943 79 29 09

E, TXO!

LEHEN SOROSPEN IKASTAROA ANTOLATU DUTE
Txatxilipurdik lehen sorospen ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 10ean, zapatua, egingo dute, Txatxilipurdiren egoitzan (Pablo Urangan). 09:30etik 14:00etara ibiliko dira horretan. Eskolak hartzeko matrikula bost eurokoa da. Txatxilipurdin bazkaldu gura izanez gero, ostera, 12 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko azkeneko eguna da urtarrilaren 7a.

DATORREN ZAPATUAN, 'LARUNBLAI' IRTEERA
Datorren zapatuan, abenduaren 13an, Txatxilipurdik *Larunblai* irteera antolatu du. Gasteizko Camelot txiki-parkera. 10:30ean Gari-bain egin dute hitzordua. 14:00etarako bueltan egongo dira Arrasaten. 3 eta 10 urte bitartekoentzako irteera aproposa da. Bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu. Anai-arrebek eta ludoteketako (Okendo eta Santa Marina) zein Txatxilipurdiko bazkideek, ostera, 8 euro ordaindu beharko dituzte. Izena Txatxilipurdin edo Okendo eta Santa Marinako ludoteketan egin dezakezu; hori bai, abenduaren 10 baino lehen.

SESTAOKO IPUIN LABURREN LEHIAKETA
Sestaoko gaztelekuak Ipuin Laburren VIII. Lehiaketa antolatu du. Interesatuak, parte hartzeko, gai libreko ipuina idatzi beharko dute. Hori bai, lanak fantasiakoa behar du izan. Hau da, errealitatearen mugak gainditu behar ditu. Esaterako, zientzia fikziozko edo Erdi Aroko istorioa izan daiteke.

Lehiaketako lanak abenduaren 31 arte hartuko dituzte. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu ondorengo zenbakira: 944 72 21 27.

AFRIKAKO EGOERAZ JABETZEKO IKASTAROA
Afrikako errealitate sozioekonomikoaz, pobrezia betiketzen duten arrazoiez eta Lehen Munduaren erantzukizunaz jabetzeko ikastaroa emango du Haurralde Fundazioak. Donostian izango da ikastaroa, abenduaren 11n eta 12an. Izena emateko dei ezazu honako telefono zenbakira: 943 46 22 90.

GUREGAIK/ FANTZINEAK

Gazte batzarrak 'Gazta Ya' fantzinearen bigarrena kaleratu du

IKER BARANDIARAN

Arrasateko gazte batzarrak *Gazta Ya* fantzinearen bigarren zenbakia kaleratu du. Doan banatzen dute, eta gaztetxean eta hainbat tabernatan aurki dezakezu. Eduki guztiak euskaraz egin dituzte.

Azkenean, AGAKOk (Arrasateko gazte batzarra) kaleratzen duen fantzinearen bigarren zenbakia kalean dago. *Gazta Ya* fantzinea xumea da, baina geroago eta diseinu hobea dauka. Oraingoan ere, gutxien espero genuenean argitaratu dute.

Fantzineak hogeitaz orrialde ditu eta zuri-beltzean egin dute. Azalean bi ertzain eta gazte batzarreko logotipoa ageri dira. Izan ere, orain dela gutxi, gazte batzarreko hiru kidek epaiketa izan dute gaztetxeko kartelak itsastegatik. Arrazoi horregatik gazteak haserre daude.

Sarrera moduan, azpimarratu dute aurreko *Gazta Ya* kaleratu zutenetik hona zortzi hilabete igaro direla, eta dagoeneko hainbat ekimen antolatu dituztela. Are gehiago, bide horretan jarraituko dutela. Modu berean, gaztetxeko kide izan diren herriko hiru gazteren (*Kasko*, Saioa eta Igor) espeteratzea salatu dute.

MOTA GUZTIETAKO GAIK
Esan beharra dago fantzineak irudiz eta diseinuz dezente hobetu duela. Bestela, fantzinearen edukiak antzekoak dira. Mota

Dagoeneko gaztetxean eta herriko hainbat tabernatan eskura dezakezue

Doanekoa da eta 20 orrialde ditu, guztiak euskaraz. Geroago eta diseinu hobea dauka

guztietako gaiak lantzen dituzte, eta edonoren laguntza eskertzen dute. Interesatuak gaztetxera jo beharko dute.

Enpresa erraldoiek eta gobernuak Interneten gizabanakoak kontrolatzeko erabiltzen duten *cookie* gailuaren gainean idatzi dute. Bestalde, Eneko Barberena idazle ezagunak ondo ezagutzen duen Donostiaren gaineko idatzi esanguratsua egin du.

Napartheid fantzinean argitaratutako idatzi bat ere moldatu dute. *Euskal arraunlari giza-jo baten eguneroko komeria (eta zorigaitza)* izena du berrargitaratu duten idatziak.

GAZTA Ya!
ARRASATEKO GAZTE ASANBLADAREN ALDIZKARIA A.G.A.K.O.

AGAKO-ko 3 kide epaituak izan dira gaztetxeko kartelak pegatzeagatik

abendua 2003 ailea

- cookie-ak
- Donosti hiri turistikoa
- euskal arraunlariak
- maulen usker '03
- alde!
- ezin bihotzik gabe
- tristie baine egixe
- zabaltzen!
- euskal hedabideak aurrera!
- legalitatea eta tortura
- adierazpen askatasuna
- mundia
- Kasko, Saioa eta Igor gaztetxera!
- toitz ito ez!
- hori dok eta!

ametsak egin hartuz!

Eskuratu laster *Gazta Ya*-ren zenbaki berria, berehala agortuko da-eta.

Oraindik Uarkapeko gaztetxea ikusi ez dutenendako, gaztetxe barruan eta kanpoan egin dituzten horma-irudien argazkiak argitaratu eman dituzte.

Horrez gain, gazte batzarreko webgunearen berri eman dute (www.arrasatekogaztetxea.th), eta uztailen gazte batzarrak Maulen egindako egonaldiaren kronika egin dute.

Era berean, euskararen erabilaren eta adierazpen askatasunaren aldeko aldarrikapenak egin dituzte. Herrian adierazpen askatasunaren alde egin dituzten horma-irudiak argazkietan batu

dituzte, eta bide batez torturaren praktika gogor salatu dute.

Poesiak ere badu bere tartea. *Ezin bihotzik gabe* lana eraman dute orri horietara. Baita Arrasateko euskararen aldeko aldarrikapena ere. *Tristie baine egixe* idatzian euskalkiaren alde egiten dute.

Itoizko solidarioen idatzi bat ere batu dute, eta gaurkotasan handia du.

Gura duenari gonbitea egiten diote fantzinean parte har dezan. Horretarako, honako helbidera idatzi beharko du: arrasatekogaztetxea@euskalherria.org.

Aisialdiko begirale ikastaroa antolatu dute

I.B.

Txatxilipurdik aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du. Urtarriletik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Arrasaten egingo dute, eta hilean behin asteburu osoa aterpetxean egingo dute.

Txatxilipurdik aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du, Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaroa, hain zuzen ere. Orain arte, Txatxilipurdik antolatzen duen ikastaroak bi urte irautean zuten. Oraingoan, ostera, 2004ko urtarriletik maiatzera bitartean egingo dute.

Hilean hiru zapatutan elkartuko dira, eta hilean behin asteburu osoa aterpetxe baten igaroko dute.

Interesatuak 200 euro ordaindu beharko dituzte, eta izena emateko Txatxilipurdi elkartera jo beharko dute (Pablo Uranga kalea) edo telefono zenbaki honetara deitu (943 79 54 46). Ikastaroan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da 2004an gutxienez 18 urte beteta izatea. Eskola horietan izena emateko epea dagoeneko zabalik dago.

JAURLARITZAREN DEKRETUA
Txatxilipurdik aditzera eman duenez, datorren urtarrilean Eusko Jaurlaritzak beste dekretu bat ateratzeko asmoa dauka. Dekretu horren arabera, udalekueetan eta halako ekintzetan parte hartzen duten begiraleen %100ek begirale titulua izan beharko dute. Orain arte, ostera, titulua %30ek edukita nahikoa zen.



Txatxilipurdik umeen eta gazteen aisialdiaren esparruan lan egiten du.

ARRASATE PRESS

TXATXILIPURDI


BEHEKODENDATIK

Eneko Alvarez

JOXAN ERLOJU DENDA

XABIER URZELAI

Joxan erloju dendiek 32 urte egin ditu. Hasiera baten Juan Carlos Gerra kalien ipiñi euen dendie, eta azken 19 urteik Portaloien egin dittue. Eneko gurasuek zabaldu euen negoziue, eta azkeneko urtiotan berak hartu dau dendako ardurie. Gustora dabil; azken baten, Eneko bera da-eta jefie.



Txikittan ze gure zeuen izen?
Egixe esatiarren, ez naz akordetan.

Drogak legalizauko zeuke?
Pentsetan dot legalizaute kontrol haundixaue egongo litzakela: saltoki konkretuetan salduko litzake, eta informaziñuekin; beste inor aberastu barik, gaiñera.

Eta prostituziñue?
Hori be legalizaute, hobeto.
Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Atrápame si puedes izen da ikusi doten azken pelikulie / Lance Armstrongen gaiñeko liburua da irakurri doten azkena. Kantzerra daukon jentiendako liburu gomen-dagarrixo da / Euskal musikie gustetan jat.

Nora juengo zitzake gustora?
Elurra egitten hasi da-eta, eskietan juengo zitzake gustora.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Bai. Edozein leku da ona.
Etxeko lan gorrotagarrixena?

Fregetie; bazkalostien, batez be.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Gustora egonez gero, ez dau biherrik.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Pazientzia.

Ze irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskal Herriko arazue konpontzekotan dauela.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Autonomuen eskubidien alde egingo neuke lanuztie.

“Txiki-txikitxotik gustau izen jat erlojuek. Hori da dauketen biziuetako bat”

Ze saltzen dozue gehixen?
Erlojuek. Bitxixek eta hola-kuek be saltzen dittugu baiñe erlojuek saltzen dittugu gehixen.

Bizikleta-zalie izen eta relojerixie euki... Festinakue izen-go zitzen ba!

Ez. Oin Euskaltel taldeko jarraitzaillie naz, baiñe oin dala urte batzuk Indurainen jarraitzaillie amorratue nitzen.

Egun osue erloju artien... Puntuala zara?

Egixe esatiarren, ez naz oso puntuala; badakizu, *Errementerixen etxien*, zotza burduntzi.

Itxuraz, eskolan zeuk eukitten zeuen erloju ikusgarrixena.
Ez dakit ba... Beti gustau izen

“Kalien ibiltteko gurau dittut orratzak daukien erlojuek; kirola egitteko, barriz, digitalak”

jat erlojuek. Hori da dauketen biziuetako bat.

Gaiñera, zeuk eruen zeuen eskolara lehenengo kalkula-gaillu-erlojue, ala?

Promozionau egin biher neuen-eta! (Barriek). Hari erlojuari esker sekulako *txuletak* egitten nittuen; izen be, *reloj-txuletero* deiketan gutzen hari erlojuari.

Erlojue, orratzekin ala digitala?

Kalien ibiltteko, orratzekin; kirola egitteko, barriz, digitala.

Bitxixek erregetako gizon-zuek xelebre samarrak gare, ala?

Batzuk bai, baiñe beste batzuk argi daukie ze gure dauen.

NIREBIDAIAHURA/ Jone Morras

Ekuador / 2003ko uztailetik urrira arte

Jone beka bati esker egon da aurten Ekuadorren, Puerto Francisco de Orellanan, hain zuzen. Beka horri esker Medicus Mundik Ekuadorren dituen bi proiektutan lan egiteko aukera izan du: Sandi Yura eta Fusa proiektuetan, hain zuzen ere.

Lehenengo proiektuan, oihaneko komunitateetako osasun promotoreen ikastaroetan hartu zuen esku Jonek: “Indigenek gaixotasunei nola aurre egin ikasten zuten; gero, euren herrietan mediku lanak egiteko”.



Bigarren proiektuan Jonek bi lan egin zituen: “Lehenengo, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeekin egin nuen lan; euren lagundu, salaketak bideratu... Gero, tabernetan egoten ziren emagalduekin egin nuen lan. Ikerketa moduko bat izan zen; lana zein egoreratan eta nola egiten zuten ikusteko. Horrekin batera, sexu praktikak egiterakoan hartu beharreko neurrien gainean ere egiten genuen berba”.

Jonek sekulako zorrea izan duela dio, bizitako esperientzia ikaragarria izan da-eta: “Guztia izan da berezia, lekua, topatutako jendea, izandako lanak... Oso gustura ibili naiz han, nahiz eta batzuetan gogorra ere izan den”. Hiru hilabete horietan gauza asko ikasi ditu Jonek, eta orain, gauza askoren gainean beste ikuspegi bat dauka: “Ezinezkoa da holako lurralde batera joan, nola bizi diren ikusi, eurekin hilabeteak eman, eta gero sentsibilizatu gabe itzultzea. Argi dago gu bizi garen moduan bizi izateko beste batzuek gaizki bizi behar dutela”.

Datorren astean ere Ekuadorren jarraituko dugu Jonerekin. Herri horretako beharren eta arazo nabarmenen gainean egingo dugu berba; horren gainean badaki-eta zerbait.

XABIER URZELAI



Saquisilín egindako argazkia, Quitora bidean.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ESKORIATZA
Tfno 714345
MENDIOLA
ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

ZAHARREN ETXETIK



APPALDEko lagunak gogor dabilta euren eskubideen alde borrokan. Hala azpimarratu zuten batzarrean.

IKER BARANDIARAN

APPALDEK sinadura batzea eta beste ekimen batzuk aurkeztu zituen

IKER BARANDIARAN

Joan den egunean, APPALDEk (Debagoieneko erretiratuen eta pentsionisten elkarteak) batzarra egin zuen Arrasateko Monterron kultura etxean. Erretiratu eta pentsionista asko batu ziren kultura etxean. Elkarteak arduradunek APPALDEk epe laburrean dituen asmoak azaldu zituzten.

APPALDEk 65 urte bete baino lehenago erretiratu direnen eskubideen alde egiten du. Izan ere, egoera horretan daudenek, behin 65 urte bete ondoren, ez dute pentsioaren ehuneko ehun jasotzen, eta horren kexu dira.

APPALDEko arduradunek epe laburrean bultzatu gura dituzten bi ekimen aurkeztu zituzten: alde batetik, auzibidearen aurreko erreklamazioa egin gura dute. Bartzelonako bi abokatu horretan dabilta, eta Espainiako Estatuko hainbat lagunek eman dute izena. Debagoieneko lagunei ere aukera hori kontuan hartzeko esan zieten. Gai hori auzitara eramateko, interesatuek 15 euro

ordaindu beharko dituzte. 65 urte bete ondoren, pentsioaren ehuneko ehun jasotzea dute helburu. Edozein modutan, epaileek eskaera hori ontzat hartzen badute, eskaera egin dutenek bakarrik jasoko dituzte onurak. Epai horrek erreklamazioa egiten dutenei bakarrik eragingo die; beste

Legebiltzarrak, lehentasuna

APPALDEko arduradunek behin eta berriro argitu gura izan zuten ez dutela inor behartuko auzibidearen aurreko erreklamazioa egitera. Erreklamazio hori egin gura dutenek 15 bat euro ordaindu beharko dituzte. Horrez gain, EAeko Legebiltzarrean parte hartzeko aukerari garrantzia eman diote, eta sinatzeko eskatu diote ibarrekoiei.

inori ez. Edozelan ere, beharrezkoak diren agiriak abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira. Ekimen horretan parte hartzeko interesa duenak jo dezala APPALDE elkarteke edozein kiderengana, informazio zabalagoa eskatzeko.

SINADURAK BATZEN DABILTA

Horrez gain, Debagoieneko erretiratuen eta pentsionisten elkarteak beste ekimen bat bultzatzen dabil. Hain zuzen ere, helburua da 65 urte bete aurretik erretiratu direnen baldintzak hobetzeko asmoz EAeko Legebiltzarrean jotzea, eta han euren eskaera aditzera ematea. Legebiltzarrean parte hartu ahal izateko, baina, sinadura mordo behar dituzte, eta horretan dabilta.

Monterronen bildutako erretiratuek beste gai batzuk ere izan zituzten hizpide. Esaterako, alargunen egoeraren gainean hausnarketa egin zuten, eta askok zera azpimarratu zuten: eurentako asko eta asko 65 urte baino gutxiago zituztenean, erretiratzera behartu zituztela.

LABUR

Uribarriko erretiratuen elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu hilabete honetarako

Uribarriko erretiratuen elkarteak ekimen berezia ipini du abian. Elkarteke batzarrak erabaki du gaixo dauden edo kalera irteten ez diren bazkideei etxera bisitak egitea. Boluntarioen artean hiru talde osatuko dituzte. Boluntario horiek ez dute ordu kopuru zehatzik egin beharko, eta gura dutenean egingo dituzte bisitak. Ekimen hori urte osoan egin gura dute.

Horrez gain, abenduan hainbat ekitaldi antolatu dituzte: abenduaren 10ean, Donostiara antolatu duten txangorako txartelen zozketa egingo dute. Aurreko astean iragarritako moduan, abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean, Donostiara joango dira, eta Zestoa-ko bainuetzeko jatetxean bazkalduko dute. Interesatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Abenduaren 12an, Santa Luzia egunaren bezperan, ostera, elkarteke bazkideek txokolate-jana egingo dute. Urteroko ohitura dute hori, eta 17:30ean egin dute hitzordua. Abenduko ekitaldiekin bukatzeko, abenduaren 20an, Santo Tomas bezperan, txistorra-jana egingo dute. Askari hori egiteko hitzordua 17:30ean egin dute.



Gabonetako bi otar Abaroa elkarteak

Urtero moduan, Abaroa erretiratuen elkarteak Gabonetako otarrak zozkatuko ditu. Horretarako, txartelak salgai jarri dituzte. Aurten, otar bat eta kutxa bat zozketatuko dituzte, biak hala biak jakiz eta edariz beteta. Gainera, kutxa bera ere egingo dute opari.

Horrez gain, abenduaren 12an, Santa Luzia egunean, luntxa antolatu dute Abaroan. Askarian esku hartzeko interesa duten bazkideek Abaroako bulegoan eman beharko dute izena, gaur, egubakoitza, azkeneko eguna da-eta. /I.B.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711762

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

OSORIK
PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE



ARRASATE
Danel Agirrebengoa
Abenduaren 6an, 4 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Natalia Otxoa
Abenduaren 9an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARRASATE
Lorea Sanchez
Abenduaren 12an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Alberto Caballero
Azaroaren 30ean, 27 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Nikolasa Madinabeitia
Abenduaren 6an, 81 urte.
Zorionak! Biloben partetik.



ARRASATE
Ainara Alvarez
Abenduaren 7an, 12 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Zumaia Arizabaleta
Abenduaren 4an, 12 urte.
Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ARAMAIO
Ander Fernandez
Abenduaren 6an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan eta lagun partetik.



ARAMAIO
Eider Ballina
Abenduaren 5ean, 8 urte.
Zorionak! Etxekoan eta lagun partetik.



ARAMAIO
Izar Elortza
Abenduaren 7an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.




ARAMAIO
Kontxi Bideburu
Abenduaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Raul, Alicia, Jose eta Rebeca.



ARRASATE
Fran Fernandez
Abenduaren 8an, 24 urte.
Zorionak, Txiskol! Lagunen partetik.



ARRASATE
Gaizka Urrutia
Abenduaren 7an, 23 urte.
Zorionak, Pelle! Lagunen partetik.



ARRASATE
Miguel Fernandez
Azaroaren 23an, 23 urte.
Zorionak, Pumu! Lagunen partetik.



ARRASATE
Ane Grille
Abenduaren 9an, 5 urte.
Zorionak! Gurasoen partetik.



ARAMAIO
Irati Errasti
Abenduaren 1ean, 15 urte.
Zorionak! Koadrilakoan partetik.



ARRASATE
Maitane Alegre
Abenduaren 10ean, 18 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Aitor Alegre
Abenduaren 6an, 12 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mikel Lezamiz
Abenduaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Julen Pardo
Abenduaren 6an, 9 urte.
Zorionak! Familiakoak.




ARRASATE
'Txaoite'
Azaroaren 30ean, 18 urte.
Zorionak! Etxekoak eta lehengusuak.



ARRASATE
Enaitz Arkauz
Abenduaren 17an, urtebete. Zorionak! Gurasoen partetik.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS Otalora
Lizentziaduna 31.




Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

La Gula del Norte
200g-ko erretilua

4,60€ 765 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Zeintzuk dira argazkian agertzen diren hiru gizonetzakoak?
Arrastoa: kooperatibekin zerikusi handia izan dute.

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JUAN CARLOS PASCUAL Endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Juan Carlos!
Galderen erantzun zuzena:
Zabaleta inguruan.

ARRASATEKO HISTORIA

San Frantzisko kalearen eta elizaren gainekoa (II)

'MONDRAGON SUS CALLES', J. LETONA

San Frantziskoren gaineko bigarren atal honetan, elizaren eta komentuariaren gainean berba egingo dugu.

Aldare nagusiko erretaula 1695ekoa da, Jacobo de Aiesta eta Rafael Sarralde arkitekto bergararrek egindakoa. Erretaula eraikitzeke 74 intxaurrondoren eta bost gaztainondoren enborrak erabili zituzten.

Aldare horren atzean dago hasierako aldea.

San Frantziskoren irudia da nagusi erretaulan, estigmatizazioaren misterioa erakusten du. Horrez gain, aurrean, Sortzez Garbiaren, San Buenaventuraren eta Santo Domingo de Guzmanen irudiak daude.

Urte dezente geroago, 1840an, frantziskotarrek komentua utzi behar izan zuten, sasoiko gobernu liberalak ezarritako desamortizazioaren eta konfiskazioaren legeak zirela-eta. Udalak ez zuen agindu hori bete nahi, baina garai latzak ziren (aurreneko gerra karlista galdu zuten, eta ondorioz, baita foruak ere). Horren ondorioz, fraideek joan egin behar izan zuten.

1840an frantziskotarrek komentua utzi behar izan zuten, gobernu liberalaren aginduz

Mesedeetako serorek komentua ospitale bihurtu zuten; oso garrantzitsua izan zen herriarendako

Komentua horren hutsik geratu zenean, parrokiako apaizak arduratu ziren hango elizarekin. Oso gutxi erabili zuten sasoi hartan.

Komentuari eta eskolari dagokienez, berriz, haiek erabiltzeko eskaera egin zuen Udalak. Isabel II.aren gobernuak onartu egin zuen eta herriari utzi zizkion, usufurutuan, eskola moduan edo



1892an, Granadatik etorritako Mesedeetako serorek komentua hartu eta ospitale bihurtu zuten.

ongintzarako erabil zitzen.

1954an, frantziskotarrak berriro ere egin ziren elizaren kargu, eta komentuariaren zatitxo batean kokatu ziren. Demetrio Garmendia aita izan zen haien

aurreneko nagusia.

San Frantzisko elizan 1963an egindako berrikuntza lanak aprobetxatu, eta Garibairen gorpuzkiak aurkitzeko azterketa ordaindu zuen Udalak. 27

eskeleto eta makina bat gauza aurkitu zituzten: txanponak, gurutzak, hilkutxa zatiak... Ondorioztatu zuten ezinezkoa zela jakitea historiagilearen hondarrak zeintzuk ziren.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko abenduaren 5a / 88. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02



Gazte-lokalak itxi zituztenetik hona, Santa Ana ermitaren arkupea izan da gazteen elkargunea.

Gazteak ez dira sartuko kultura etxeko lokaletan

Gazteak ez dira sartuko Udalak emandako lokaletan. Martitzenean, hilak 2, izan zuten Udalaren eta gazteen ordezkariak azkeneko batzarra; Udalak gazteek egindako planteamenduari erantzun behar zion. Gazteek kontatu digutenez, oso desengainatuta atera ziren batzarretik. Balorazio txarra egin dute. Kontatu digute hasieratik jaso zutela Udalaren ezezko borobila. Gazte-lokaletatik ateratzeko adinarengatik eta gazte-lokalen ordutegiarengatik eman diela Udalak ezetza. Gazteen esanetan, adierazi zuten ez dela komenigarria harremanik egotea 14 urteko eta 20 urteko gazteen artean. Nabarmendu zuten oso giro eskasa aurkitu zutela zinegotzieren artean. Esan zutela gazteek modu batean pentsatzen dutela eta Udalak beste modu batean, eta, ez dagoela zereginik, ez dagoela ezer negoziatzerik. Gaineratu zuten, oraindik posible dela gazteek lokalak erabiltzea, baina hori eginez gero, lokaletan sartuko diren izenak eskatuko zizkietela. Hala, 20 urtekoren bat egonez gero, guztiak joango zirela kalera. 20 urtekoek lokaletara sartzea debekatuta zutela, eta behin 20 urte bete eta gero,

bestelako alternatibak badituztela: ehiza, arrantza, eskulanak...

Gazteek, euren aldetik esan zieten erretiratuen etxearenak moduko arauak nahi dituztela gazte-lokalendako. Udalak, berriz, ezetz. Eta hala, batzarra bukatutzat eman zuten Udalak.

Gazte-lokalak erabiltzeko Udalak ezarritako adinaren eta ordutegiaren gaineko arauekin ez daude batere konforme gazteak; honako planteamendua egiten dute:

ADIN-MUGA ETA ORDUTEGIA

Hasteko, ez daude konforme lokaletatik irteteko Udalak ezarritako 20 urteko mugarekin. Zera diote: "Norberak jakingo du noiz irten. Hori guztiori legedi baten barnean: sartzen diren koadrila bakoitzeko ordezkariaren izenak emango dira fidantza kontuarengatik eta nor sartzen den eta sartzen ez den jakiteko". Horrez gainera, honakoa ere gaineratzen dute: "Nik badakit 24 urte dauzkadanean ez naizela egongo gustura 13 urteko jendearekin; hala, azkenean, nagusiak joan egingo dira, ez dago muga ipini beharrik".

Ordutegiarekin ere ez daude konforme. Euren ustez ez litza-

teke ordutegirik ipini behar. "Ez dago beharrik. Ni etxera joango naiz amak esaten didanean. Lokaletan ez da jendea berandu arte egongo, gurasoek ez dietelako utziko. Eta edozein modutan, gurasoek utziz gero, han bi lagun egoten badira ere ez da ezer pasatzen". Gaueko ordu txikietan sortu litezkeen zarata arazoaren gainean, gazteek zera diote: "Aurreko agintaldian sekula ez digute esan kexurik egon denik gauean zarata sortzearen".

EGOTEKO LEKUA

Bukatzeke, gazteek diote lokalak egoteko lekua direla. "Tabernan dirua gastatzen edo kalean hotzak hiltzen egon beharrean, lokaletan egoteko aukera eskatzen dugu, beste barik. Musika entzuteko, telebista ikusteko, berba egiteko... Gainera, aurreko gaztetxea itxi zutenean, Aramaioko gazteok sakabanatu egin gintuzten. Gazteria zatitu egin zuten. Koadrilatxoak sortu ziren, eta kalea izan da gu elkartzeko lekua. Orain, gazte guztiak elkartzeko lekua nahi dugu, baina baldintza onak dituenak, ez Santa Ana ermita moduko leku hotz eta iluna.

LABUR

Umorea izango da nagusi gaur gauean Anboto tabernako ikuskizunean

Anboto tabernatik hitzordua helarazi digute gaurko, barikua. Oraingo honetan, antzerki saioa ikusteko aukera izango da. Hain zuzen ere, *Fakundo, K mal T'al mundo* izeneko antzezlanaren antzeztuko du Juan Moreno *Moito & Cia* izeneko taldeak. Oro har, hiru lagun artean egindako lana da, umorea oinarri moduan hartuta. 22:30ean hasiko da ikuskizuna.

Luis Mari Azkargorta 'Kanto' berriro kartzelan

UBANE MADERA

Joan den egueaz gerotik (hilak 27), Luis Mari Azkargorta *Kanto* kartzelan da berriro. Auzitegi Zentralean errekurtsioa aurkeztu du Estatuko fiskaltzak, eta orain, 1988an ezarri zioten zigor osoa bete behar du aramaiarrak. 15 urte preso egon eta gero, urtarrilean askatu zuten.

Zigorren hiru laurdenak bete zituela-eta, Bilboko Espetxeratuaren Zaintzako Epaitegian Luis Mari Azkargortaren kasua aztertu, eta Ruth Alonso epaileak baldintzapeko askatasuna eman zion. 2003ko urtarrilaren 7a zen. Baina urtebete ere ez du egin kalean Luis Mari Azkargortak. Izan ere, sortu berri duten Auzitegi Zentralak aramaiarraren baldintzapeko askatasuna atzera bota du. Epaitegiak emandako arrazoiaren arabera, Bilboko Espe-

txeratuen Zaintzako Epaitegiak ez dauka eskumenik presoari hirugarren gradua ezarri eta baldintzapeko askatasuna emateko.

Hala, eguaztenean Luis Mari Azkargortari jakinarazi zioten hurrengo egunean Martuteneko kartzelan egon beharra zeukala. Hala egin zuen berak, eta harrezkero Donostiako kartzelan dago. Orain, Auzitegi Zentralaren arabera, 1988an ezarri zioten zigor osoa bete behar du; horren ondorioz, 2007ra arte egon behar du kartzelan.

HIRUGARREN ALDIZ

1980an atxilotu zuten lehenengo aldiz Luis Mari Azkargorta. 10 egunez bakartuta izan zuten; aramaiarrak tratatu txarrak salatu zituen. Eta lau hilabetez egon zen kartzelan. Gero, 1988an atxilotu zuten berriro, eta 2003ra arte egon da kartzelan; 15 urtez, hain zuzen. Zazpi kartzelatan egon da tarte horretan.



Luis Mari Azkargorta, Bergaran harrera egin zioten egunean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

| | |
|---------------------------------|--------------|
| Osasun etxea (txandak) | 945 44 53 40 |
| Botika | 945 44 50 03 |
| Udaletxea | 945 44 50 16 |
| Ertzaintza (Arrasate) | 943 79 71 99 |
| Gurutze Gorria (Legutio) | 945 45 52 52 |
| San Martín Eskola | 945 44 50 04 |
| Taxia eta autobusak | 945 44 50 33 |
| Udal kiroldegia | 945 44 53 35 |
| Postetxea | 945 44 50 83 |
| Zuliako Eskualdea | 945 43 01 67 |
| Suhiltzaileak (Zubillaga) | 943 78 28 00 |

AUTOBUSORDUTEGIA

| ARRASATE | ARAMAIO | GASTEIZ |
|----------|---------|---------|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00* | 10:15 | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00* | 12:15* | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30* | 18:45 | |
| 20:30 | 20:45 | 21:25 |
| 21:00* | 21:15 | |

| GASTEIZ | ARAMAIO | ARRASATE |
|---------|---------|----------|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:15 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15* | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:55 | 14:10 |
| 16:20 | 17:05 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 18:45* | 19:00 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

OHARRA: izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

EHNA EGITEKO

Abenduaren 14an EHNA tramitatuko dute Aramaion, Bai Euskal Herriari taldeak deituta. Interesa duenak 11:00etatik 14:00etara bitartean joan beharko du udaletxera.

ARETO FUTBOLA

Oraingo honetan neskek 4-3 galdu zuten Ekialderen kontra. Asteburuan, berriz, atsedena izango dute. Mutilei dagokienez, euren partidua bertan behera geratu zen, ez zutelako Laudiora joateko autobusik lortu. Seguru aski bihar, zapatua jokatuko dute partidua hori, La Milagrosaren kontra.

ZINEMA

Los rebeldes de Shanghai filma emango dute.

IPUIN KONTALARIA

Datorren barikuan, hilak 12, Karlos Santisteban idazleak hitzaldia egingo die San Martín eskolako umeei liburutegian. 14:15ean hasiko da.

KZGUNEAREN ORDUTEGIA

Abenduan goizez zabalduko dute, 09:00etatik 13:00etara.

Epaitegiak erabaki duenez, Oletako abadetxea auzotarrena da

U.M.

Oletako abadetxea dela eta, orain dela gutxi epaitegiak erabaki du etxe hura Gotzaindegiarena barik oletarrena dela. Oso erabaki garrantzitsua da hori oletarrendako, auzoan ez dituzte-eta auzotarrenak diren jabetza asko. Orain arte moduan erabiltzen segituko dute.

1747an, oletarrek abadea bizitzeko etxea eraiki zuten Oletan, beste leku askotan moduan, ardoari ezarritako zergaren bitartez. Eta, 1923an, han bizi zen abadeak jabetza erregistroan sartu zuen abadetxea Gotzaindegiaren izenean, baina, ez zuen adierazi Gotzaindegia zela haren jabe, baizik eta haren edukitza zuela adierazi zuen. 1941era arte bizi izan zen abade hura Oletako abadetxean.

Rafael Untzaluk, abadetxearen gaia lantzen ibili denak adierazi digunez, urte askoan han ez da bizi izan abaderik; are gehiago, 1975etik aurrera, etxea konponetzeko asmoarekin elkarteak sortu zuten bazkideen kuoten bitartez konponketak egiteko. Hala egin zuten. Harrezkero, abadetxea oletarrek erabili izan dute: elkarte moduan, auzoko emakumeenda-



Abadetxea ardoari ezarritako zergaren bitartez eraiki zuten oletarrek, 1747an.

ko... Gainera, lehenagotik ere erabiltzen zuten abadetxe, egurra gordetzeko, korta moduan...


Kontua da, 1997an, oletarrek abadetxea jabetza-erregistroan sartu zutela, baina, eurak jabeak balira moduan. Horren ondorioz, Arabako Gotzaindegia dezente haserretu zen eta gutuna bidali zien oletarrei. Aldiz, haiek ez zioten kasurik egin. Baina, geroago, aba-

detxearen teilatua konpontzen hasi zirenean, berriro ere Gotzaindegiaren gutuna jaso zuten. Rafael Untzaluren esanetan, mehatxuak eta bidali zizkien, oletarren jarra kritikatzen, eta gaia epaitegitara eramango zutela esanez.

ALDEKO EPAIA

Hala egin zuten Gotzaindegiak, eta orain dela gutxi epaia kaleratu du

epaitegiak. Oletarren aldekoa izan da erabaki hori. Horrek esan nahi du epaitegiak erabaki duela abadetxea oletarrena dela, eta ez Gotzaindegiarena. Rafael Untzaluk kontatu digun moduan, abadetxea Gotzaindegiaren jabetza lortzeko, 30 urtez jarraian bizi behar zuen abaderen batek, eta oletarrek epaitegiari probatu diote hori ez dela sekula hala izan.



Margo erakusketa izango da Sastiñan

Datorren barikutik, hilak 12, abenduaren 23ra arte, Jose Luis Zalakain margolariak erakusketa izango du Sastiñan. 24 margolan ipiniko ditu ikusgai, erdiak Aramaioaren gainekoak. Lan gehienak olioz margotuta daude, baina, baditu akrilikoz egindako lanak ere.

Honako hauxe da erakusketa ikusteko ordutegia: egunero 18:00etatik 20:30era, eta zapatuetan eta domeketan, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 18:00etatik 20:30era. Margolaria bera izango da erakusketa zaintzen. /U.M.

LABUR

Dantza libre ikasteko aukera eskaini gura du Itur Zuri emakume elkarteak

Itur Zuri emakume elkarteak dantza libreko ikastaroa antolatu nahi du. Dantza libre 1900ean Isadora Duncan dantzariak bul-tzatutako mugimenduaren emaitza da. Emakume hark oztopo eta muga bariko dantzaren alde egin zuen, sasoi hartan nagusi zen ballet klasikoaren parean. Oro har, emakumeen askatasuna irudikatzen duen dantza da dantza libre. Aramaion, François Mal-kovsky dantzariaren metodoa landuko dute.

Itur Zurikoek kontatu digutenez, Gasteizko irakasle batek eman-gu du ikastaroa. Oraindik ez dute ikastaroa hasteko eperik ezarri, baina, bai izena emateko. Horren arbera, interesa duenak urtar-rilaren 30a baino lehen eman beharko du izena, 945 44 53 74 telefonoan. Gutxienez, zortzi laguneko taldea sortu beharko dute ikastaroa emateko.

Osakidetzak esan duenez, arrakasta izan du aurtengo gripearen kontrako kanpainak

Gripeari aurre egiteko aurtengo kanpainaren gaineko oso balorazio positiboa egin du Arrasateko anbulatorioko arduradun Edurne Marañonek. Txerto hori 65 urtetik gorakoei eta 65 urte baino gutxiago izanda gaixotasun kronikoren bat dutenei zuzendutakoa da. Hala, Edurne Marañonek emandako datuen arabera, Aramaion, talde bi horietako %84-86 hartu dute gripearen kontrako txertoa. Eta, kontuan hartuta Osakidetzaren helburua dela Euskal Autonomia Erkidegoan talde horietako %65i ematea, bada Aramaion helburu hori bete eta gaingitu egin dela nabarmendu beharra dago. Era berean, esan beharra dago iazko datuekin konparatuz gero, gora egin duela txerto kopuruak. Hain zuzen ere, iaz 229 txerto eman zituzten, eta aurtun 250.

Irailaren 15ean hasi ziren txertoa ipintzen eta urriaren 31ra arteko epe-muga ezarri zuten, baina, ohikoa denez, berandu ibili direnei-eta aukera emateko, beste aste pare batez luzatu zuten kanpaina. Txerto horren bitartez gripeari aurre egitea edo besterik ez bada ere, gripearen eragina samurragoa izatea gura du Osakidetzak.

ERRETRATUZAHARRA

Omenaldia Jesus Loroño txirrindulariari

Kiolari emango diogu oraingo honetan argazki zaharraren tartea. 1957ko argazkia ekarri dugu horretarako. Hain zuzen ere, urte hartan Jesus Loroño txirrindulari bizkaitarrak Espainiako Itzulia irabazi zuen eta Arrasaten ospakizuna prestatu zioten.

Gure berriemaileak kontatu digunez, azken orduan prestatutako omenaldia izan zen hura; lantegian gezurra esan, eta 16:00etan lanetik atera ziren omenaldia prestatzeko, Union Cerrajeratik, hain justu. Besteak beste, Popillo baserrira joan ziren Jesus Loroñorendako arrosa bila, eta gero, mokadutxo prestatu zuten: atuna, antxoatxoak, urdaiazpikoa, ardoa... Horrez gainera,

arrosekin batera, kutxa gotorra ere opari egin zioten, ondo asko apainduta grabatuekin.

Arrasateko Centro de Accion Catolican egin zioten omenaldia Loroñori. Guztira 500 bat lagun elkartu ziren han. Hain zuzen ere, bakoitzak bosna pezeta ipini zituen omenaldiko gastuetan laguntzeko.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik eskumara: Isidro Zubillaga, Gerardo Muxika, ezezaguna (atzean dagoena), Jesus Loroño, Jose Lasaga, Luis Zufiria, Segundo Amozarain, Karmelo Zubillaga eta Eugenio Otadui.

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: Karmelo Zubillaga
Urtea: 1957



NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

San Agustin eguna Zarugalden

1953ko abuztuaren 28an, San Agustin egunean, Zarugaldeko bizilagunek igel harrapaketa antolatu zuten. Argazkikoa Aramaio erreka da, eta, gezurra badirudi ere, orain dela urte batzuk arrainez beteta zegoen: ezkailuak, aingirak, zarboak, amurrainak... Gainera, mondragoetar askok bainua hartzen zuten errekan. Gaur egun zati hori estalita dago, Muxibar inguruan.



≈ 1953

Argazkiaren atzealdean Zarugaldeko ikuztegia azaltzen da. Lehen, emakumeak hara joaten ziren arropa garbitzera.



2003

Gaur egun argazki horren moduko bat ateratzea pentsaezina da. Batek daki etorkizunean errekan bainua hartzeko aukera izango dugun.



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82


UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure
etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA





38. euskal liburu eta disko azoka
2003ko ABENDUAREN 4tik 8ra, DURANGO

38. euskal liburu eta disko azoka
DURANGO 2003
Abenduaren 4tik 8ra

Literaturaren alde gaude, musikaren alde.

Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,

unibertsitateak sortzen dituztenen alde,

hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.

Kulturaz mintzo garenean,

guztion mintzaira baitarabilgu.



Fundación
Grupo Eroski

KONTSUMITZAILEARENTZAT